

Gipuzkoako Aldundiaren kontratu publikoetan klausula sozialak aplikatzeko Gida praktikoa

ALDIA
ONTRATU
BLIKOETA
LAUSULA
SOZIALAK
KATZE



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Sarrera	4
1. Lizitazio iragarkia eta orrien karatula	11
2. Gaitasun eta kaudimen baldintzak (11/2014 Foru Araua II. Kapitulua)	12
3. Esleitzeko irizpideak (11/2014 Foru Araua III. Kapitulua)	15
4. Gauzatze baldintzak (11/2014 Foru Araua IV. Kapitulua, eta 4/2013 Foru Araua 5 - 9 artikulua)	21
5. Zigorak ezartzeko erregimena (11/2014 Foru Araua V. Kapitulua)	32
6. Kontratuaren jarraipena eta betetzen dela egiaztatzea	34
7. Gomendioen txostena	40

Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundia konprometituta dago erosketa publiko sozialki arduratsuen printzipioekin; hori dela eta, 2014ko urriaren 29an onartu zen 22/2014 Foru Araua, foru sektore publikoaren kontratuetan erosketa publiko sozialki arduratsuei buruzko klausulak txertatzekoa. Horrela, kontratuak baliatu ditu beste politika publiko batzuk sustatzeko, irizpide sozial, etiko eta ingurumenekoak aintzat hartuta. Foru Arau honetan parte hartu dute askotariko erakunde sozialek, eta Batzar Nagusietan aho batez onetsia izan aurretik, sindikatuen, ekonomia sozial eta sozialeko sareen babesas jaso zuen.

Baina Foru Aldundiaren konpromisoa are urrunago doa, eta, 2014. urte amaieran, Gizarte Politikako Departamentuak berak, plan pilotu bat jarri zuen abian, Foru Araua aplikatzea eta behar bezala inplementatzea sustatzeko. Horretarako, REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) elkartearen lankidetzat izan zuen, eta honek, era berean, Santiago Lesmes erosketa publikoan espezializatutako juristaren laguntza jaso zuen. Azken buruan, lortu nahi zen Foru Arauak arautzen duena praktikara eramatea, Foru Aldundiaren kontratazio publiko guztietara hedatzeko.

Lan planaren barruan, Departamentuko langile tekniko eta politikoei zuzendutako prestakuntza saioak egin dira, baldintza agiriak egiteko aholkularitza teknikoa eman da eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztietako langileei aurkeztu zaien gida hau idatzi da, klausula sozialak behar bezala txertatzen laguntzeko. Bertan jasota dago 2014ko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauan xedatutako guztia, eta baita ere aurretik, 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Arauan, foru sektore publikoaren obra publikoetako kontratuetan klausula sozialak txertatzeari buruzkoan, ezarrita zegoena..

Gida hau zuzentzen zaie, batez ere, Foru Aldundian eta foru departamentuetan kontratazioez arduratzen diren langile tekniko nahiz politikoei. Espero dugu araututakoa garatzen dela bermatzeko balio izatea eta, horrela, kontratazio publikoa Foru Arauan aipatzen diren printzipioen zerbitzura jartzea: ingurumen jasangarritasuna, aukera berdintasuna, gizarteratzea eta lan munduan txertatzea, edo lan baldintzak, besteak beste. Horrela, ekintza publikoak sustatuko du tokiko garapena eta garapen ekonomikoa sozialagoa, inklusiboagoa, ekitatiboagoa eta bidezkoagoa izatea.

2015eko apirila



Ander Rodríguez Lejarza
Gizarte Politika Departamentuko Diputatua

Sarrera

Azken urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat ekimen jarri ditu martxan eta hainbat instrukzio eman ditu kontratazio publikoetan irizpide sozialak sartzeko. Lan ildo horri jarraituz, Gida hau Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari eta politikarientzat prestatu da, egin behar dituzten erosketa eta kontratazio publikoetan klausulak sartzeko lagungarri izan dakien, oinarri hartuta:

- 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.
- 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratueta klausula sozialak txertatzekoa.

Horiez gain, arau hauek osatzen dute Gida honen erreferentziako arau-esparrua:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratueta eta diru laguntzetan sartzea onartzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa, administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, irizpide sozialak, ingurumenari buruzkoak eta beste politika publiko batzuk autonomia erkidegoko administrazioan eta haren sektore publikoan eta kontratazioan sartzeari buruzkoa, 2008ko apirilaren 29an onartua.
- 2014/24/EB Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.
- 2004/18/EE Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko martxoaren 31koa, obra, hornidura eta zerbitzuei buruzko kontratu publikoak esleitzeko prozedurei buruzkoa.

Helburu sozialak eta ingurumenekoak:

11/2014 Foru Araua (1.2 artikulua):

- Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea.
- Langabeziari aurre egitea.
- Arrisku edo bazterkeria sozialean dauden pertsonak gizartean eta lan-merkatuan sar daitezen erraztea.
- Langileen oinarrizko eskubideak errespetatzen direla bermatzea.
- Enpleguaren kalitatea sustatzea.

- Segurtasuna eta lan osasuna sustatzea.
- Ingurumena babestea.
- Inguruari kalte eragiten ez dioten ekoizpen sistemak sustatzea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Emakume eta gizonen berdintasun egiazkoa bultzatzea.

4/2013 Foru Araua (Hitzaurrea eta 1.2 artikulua):

- Obra kontratuetako esleipendunek betetzea lan arloko, gizarte segurantzaren arloko eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebeharrak, subkontratazio esparruko betebeharrak nahiz berdintasunaren arloko betebeharrak, betebeharrak horiek direnean gizarte eta lan arloko legeditik eratorritako eskubide kolektiboen eta indibidualen ondoriozkoak, edo aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboen ondoriozkoak.

Eremu subjektiboa: nork aplikatu behar ditu?

<p>Eremu subjektiboa: Nork aplikatu behar ditu klausula sozialak?</p> <p>11/2014 Foru Araua (3. artikulua)</p> <p>4/2013 Foru Araua (Hitzaurrea eta 3 artikulua)</p>	<p>Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio organo guztiek: Foru Aldundiak, foru organismo autonomoek, foru enpresa entitate publikoek eta kapitala osoki foru publikoa duten merkataritzako foru sozietateek.</p>
--	--

Eremu objektiboa: zein kontratutan aplikatu behar dira?

<p>Eremu objektiboa:</p> <p>11/2014 Foru Araua (2. artikulua)</p> <p>4/2013 Foru Araua (2. artikulua)</p>	<p>Zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak, hornikuntza kontratuak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta orobat, administrazio kontratu bereziak (11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa).</p>		<p>“Kontratuaren xedeak edo ezaugarriek horretarako aukera ematen badute”.</p>
	<p>Obra kontratuak eta obra publikoen kontzesioko kontratuak.</p>	<p>11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.</p>	<p>- 16, 17, 19, 24 eta 25. artikulua.</p> <p>- Eta 4, 11, 12, 13, 14, 22, 23, 30 eta 31. artikuluetako xedapen orokorrak.</p>
		<p>4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoa.</p>	<p>Balio zenbatetsia publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko ezarritako zenbatekoaren berdina edo handiagoa duten obra kontratuak.</p>

Zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak, hornikuntza kontratuak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta administrazio kontratu bereziak.

11/2014 Foru Araua aplikatu behar da **zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak, hornikuntza kontratuak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta orobat, administrazio kontratu bereziak** esleitzeko prozeduretan.

Obra kontratuak eta obra publikoen kontzesioko kontratuak

11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa, **ez da oso-osorik obra kontratuei aplikatzekoa; artikulua hauetan ezarritakoa bakarrik aplikatzen zaie obra kontratuei:**

- 16 (Esleipen irizpidea lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenentzat lanpostuak sustatzeko).
- 17 (Esleipen irizpidea gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzat enplegua sustatzeko).
- 19 (Ingurumeneko esleipen irizpidea).
- 24 (Gauzatze faseko baldintza bereziak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez).
- 25 (Gauzatze baldintza bereziak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzeko).
- Eta artikulua horien inguruko xedapen orokorrak, horiekin lotuta aplikatzekoak, 4, 11, 12, 13, 14, 22, 23, 30 eta 31. artikuluetan ezarriak.

Gainera, Foru Arau horrekin batera aplikatu beharrekoa da –elkarren osagarriak baitira– 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoa.

Eta, beti aplikatu behar al dira klausula sozialak?

4/2013 Foru Araua aplikatzen zaie **balio zenbatetsia publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko ezarritako zenbatekoaren berdina edo handiagoa** duten obra kontratuei.

11/2014 Foru Araua beti, kasu guztietan, edozein izanda ere zenbatekoa, gauzatzeko epea edo esleitzeko prozedura. Baita kontratua zatikatzen denean ere. Kontratu jakin batzuetan halabeharrezkoak ez badira administrazio klausula berezien orriak, klausulak espedientea prestatzeko dokumentazioan sartuko dira. Eta kontratu txikietan, eskaintzen eskaeretan sartu ahal izango dira.

Baina aplikatuko dira baldin eta **“kontratuaren xedeak edo ezaugarriek horretarako aukera ematen badute”**. Kontzeptu hori argi eta garbi, eta jakinaren gainean, zehaztugabea da, eta bi helburu ditu: lehenengoa, kontratazio organoa izatea erabakia hartuko duena; eta, bigarrena, automatikoki tasatutako kasu konkretu batzuk ezarri beharrian, kasu bakoitza ebaluatzerak behartzea, xedea eta ezaugarriak kontuan izanda, klausulak aplikatzea egokia den erabakitzeak.

Hala ere, adibide moduan, esan dezakegu jarraian aipatzen diren kasuetan, a priori, klausula sozialak ez lirakekeela aplikatu beharrekoak izango, kontratuaren xedea edo zirkunstantziak kontuan izanda:

- Munta txikiko kontratuak edo iraupen laburrekoak (adibidez, bi hilabete).

- Kontratu gauzatzeko edo zerbitzua emateko oso langile gutxi behar dituzten kontratuak.
- Kualifikazio handiko laneskua behar duten kontratuak, eskatzen den profila eta kualifikazio profesionala ikusita, gizartetik baztertuta geratzeko edo lan merkatutik kanpora geratzeko arriskua dute pertsonak hartzeko aukerarik ematen ez dutenak.
- Plantilla osoa subrogatzea eskatzen duten kontratuak (horrek, hala ere, ez du libratzen bajak eta bestelako ordezenak egiteko orduan gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak hartzeko obligaziotik).
- Duten xedearengatik, irizpide batzuk aplikatzeko aukerarik ematen ez duten kontratuak (merkataritza justua, kalitate soziala, elikagaiak erostea).

Metodologia. Baldintza orrietan aplikatzea, urratsez urrats

<p>Lizitazio iragarkia eta orrien karatula</p>	<p>11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa. 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Azpiapartatu bat edo hainbat sartu behar dira, izaera sozialeko eta/edo ingurumeneko baldintzak bete egin behar direla zehazteko. - Eta azpikontratarik baldin badago, hark ere bete beharko dituela. - Eta, kasua denean, enplegatzaile gisa subrogatu beharko duela aurreko kontratua gauzatzeko formalizatutako laneko harremanetan. - Obra kontratuetan azpiapartatu bat jasoko da, kontratazio horretan izaera sozialeko baldintza bereziak bete behar direla adierazteko.
<p>Condiciones de aptitud y solvencia</p>	<p>Kontratu erreserbatuak 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da nahitaez aplikatzen, kasu bakoitzean ikusi behar da, eta egoki denean aplikatu: eskulanean intentsiboak diren jardueretan. Eta kontratuaren xede den zerbitzua eman dezaketen Enplegu Zentro Bereziak eta/edo Laneratzeko Enpresak daudenean. - Kontratuaren xedea zatikatu egin daiteke, zati bat erreserbatzeko.
	<p>Desgaitasuna dutenen %2ko kuota betetzea 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Nahitaez sartu beharrekoa. - Desgaitasuna duten langileen %2ko kuota betetzen dela frogatu behar da 50 langiletik gorako enpresetan. - Lizitatuzaileek ziurtagiria edo erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute, plantillako langile guztien eta desgaitasuna dutenen kopurua zehazteko, edo neurri alternatiboak betetzen direla egiaztatzeko.
	<p>Kaudimena hizkuntza arloan 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio organoek erabakiko dituzte hizkuntza arloko kaudimenaren gutxieneko baldintzak. - Zinpeko deklarazioa eskatu ahal izango da, Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa, administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa, betetzeko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak jartzeko konpromisoari dagokionez.

<p>Esleipen irizpideak</p>	<p>Gai orokorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Nahitaez sartu behar dira. - Kontratuaren xedeari lotu behar zaizkio. - Irizpide bat edo gehiago sar daitezke. - Salbuespen gisa, aplikatu gabe utz daitezke, edo pisu txikiagoa eman, arrazoiak azalduta txosten arrazoitu batean. - Gutxieneko pisua osoko puntuazioaren %10 izango da. Obra kontratuetan gutxieneko pisua osoko puntuazioaren %5 izango da.
	<p>Zerbitzu kontratuak; zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak; hornikuntza kontratuak; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak; eta administrazio kontratu bereziak.</p> <p>11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA: genero ikuspegia kontratuaren xedeari ezaugarri teknikoa denean. - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea: kontratuaren xedea lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea denean. - Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudeneztat enplegua sustatzea: kontratazioaren xedea gizartetik baztertuta edo baztertzeko arriskuan daudenen enplegua sustatzea denean. - Proposamenaren kalitate soziala: aukerakoa, kontratazio organoarentzat eskaintza onuragarriagoa denean. - Ingurumena: kontratuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.
	<p>Obra kontratuak eta obra publikoen kudeaketa kontratuak</p> <p>11/2014 Foru araua, urriaren 29koa.</p> <p>4/2013 Foru araua, uztailaren 17koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea: kontratuaren xedea lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea denean. - Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudeneztat enplegua sustatzea: kontratazioaren xedea gizartetik baztertuta edo baztertzeko arriskuan daudenen enplegua sustatzea denean. - Ingurumena: kontratuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.
		<ul style="list-style-type: none"> - Neurriz kanpoko edo ezohiko eskaintzak. - Lehentasuneko edo berdinketa hausteko irizpidea: lehentasuna izango dute: <ol style="list-style-type: none"> 1. Desgaitasuna duten langileen proportzioa %2tik gorakoa duten enpresek, eta berdinketa hausten ez bada, desgaitasun fisikoa duten langileen portzentaje handiena dutenek. 2. Lanpostuen %30 gutxienez gizarte bazterkeriako arriskuan daudenei kontratatze konpromisoa hartzen duten enplegu sustapeneko eta laneratzeko enpresek.

<p>Gauzatze baldintzak</p>	<p>Gai orokorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Nahitaez sartuko dira, kontratuaren zirkunstantziek aukerarik ematen badute. - Salbuespen gisa, aplikatu gabe utz daitezke, edo portzentaje edo obligazio txikiagoak sartu, arrazoiak azalduta txosten arrazoitu batean. - Lizitatzailerik atxikimendu eta konpromiso dokumentu bat aurkeztu beharko dute, adieraziz beteko dituztela gauzatze baldintza bereziak.
	<p>Zerbitzu kontratuak; zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak; hornikuntza kontratuak; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak; eta administrazio kontratu bereziak.</p> <p>11/2014 Foru araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza arloan: bi hizkuntza ofizialen erregimena bete, euskal herriko autonomia estatutuak 6. Artikuluan eta 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 legeak, euskara normalizatzeari buruzkoak, ezarritakoaren arabera. - Berdintasun arloan: genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri teknikoa denean. Genero ikuspegia ez bada kontratuaren xedea, txosten arrazoitua egin beharko da. - Emakumeen eta gizonen berdintasuna: nahitaezkoa da ezarrita dauden baldintzetako bat edo gehiago sartzea. - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten enplegua sustatzea: esleipendunak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu behar ditu nahitaez: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10. - Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzat enplegua sustatzea: esleipendunak gizarte bazterkeriaren arriskuan edo egoeran dauden pertsonak kontratatu behar ditu nahitaez: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10. - Irizpide etikoak eta merkataritza justukoak: <ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza justuko produktuak sartu behar dira, kontratuaren ezaugarriek aukera ematen badute. - Egokia dela erabakitzen denean, ekoizpen kate osoan langileen oinarrizko eskubideak, eta baita lanaren nazioarteko erakundeak ezarritako oinarrizko konbentzioak ere, errespetatu behar direla zehaztuko da. - Enpleguaren kalitatea eta langileen oinarrizko eskubideak: lan arloko, gizarte segurantzako eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko araudia bete, kontratuaren ezaugarriek aukera ematen badute. - Gauzatze baldintza bereziak elikagaien erosketari dagokionez: kontratuak nekazaritza produktuekin zerikusia badute, eskatuko da produktu ekologiko, fresko edota garaikoak, jatorri izendapen babestua edo adierazpen geografiko babestua duten produktuak kontsumitzea.

	<p>Obra kontratuak eta obra publikoen kudeaketa kontratuak.</p> <p>11/2014 Foru araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta gizonen berdintasuna: nahitaezkoa da ezarrita dauden baldintzetako bat edo gehiago sartzea. - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea: esleipendunak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu behar ditu nahitaez: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10.
	<p>4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan. - Azpikontratatzea. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.

1. Lizitazio iragarkia eta orrien karatula

Lizitazio iragarkian eta administrazio klausula berezien orrien karatulan edo dagokion dokumentazio baliokidean jaso beharko dira:

1.1. Azpiapartatu bat edo gehiago, kontratazioak Foru Arau honetako baldintza sozialak eta ingurumenekoak bete behar dituela adierazteko.

Zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak, hornikuntza kontratuak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta administrazio kontratu bereziak.

Kontratu honetan bete beharko dira (adierazi aukera egokia) desgaitasuna duten pertsonen kuotaren arloko, hizkuntzaren arloko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko, ingurumenaren arloko, lan merkatuan sartzeko zailtasuna duten pertsonen enplegua sustatzearen arloko, gizarte bazterkerian dauden edo egoteko arriskua duten pertsonen enplegua sustatzearen arloko, proposamenaren kalitate sozialaren arloko, irizpide etikoen eta merkataritza justuaren arloko, enpleguaren kalitatearen eta langileen oinarrizko eskubideen arloko, elikagaien erosketa publikoaren arloko betebeharrak sozialak, orrian zehazten denaren arabera, 2014ko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoaren, arabera.

Obra kontratuak eta obra publikoen kontzesioko kontratuak

2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Arauaren, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoaren, arabera, kontratu honetan bete beharko dira lan arloko, gizarte segurantzaren arloko eta lan segurtasun eta osasun arloko lege, arau eta hitzarmenak eta, bereziki, une bakoitzean indarrean dagoen Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren azken testua, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) argitaratua.

Era berean, kontratu honetan bete beharko dira azpikontratazio arloko izaera sozialeko betebeharrak, ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzekoak, nahiz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzekoak, beti ere baldintza orrian zehaztu moduan.

1.2. Enpresa edo entitate esleipendunak kontratuaren zati bat azpikontratatzeko asmoa azaltzen badu, enpresa edo entitate esleipendun horrek kontratazio organoaren aurrean aurkeztu beharko du azpikontrata formalizatzeko agiria, bertan ezarriz azpikontratatistak dituen betekizunak aurreikusitako klausulei buruz eta horiek ez betetzearen ondorioak. (11/2014 Foru Arauaren 4.3 art.).

1.3. Kontrata xede bereko beste kontratu baten ondorengoa bada, klausula bat erantsiko da adieraziko duena esleipendunak aurreko kontrata burutzeko gauzatu ziren lan harremanetan subrogatu beharko duela enplegatzaile moduan, beti ere Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 44. artikulua, aplikagarri den hitzarmen kolektiboak edo foru erakundeek gaiaren inguruan onartutako erabakiek ezarri moduan (11/2014 Foru Arauaren 4.4 art.).

2. Gaitasun eta kaudimen baldintzak (11/2014 Foru Arauaren II. Kapitula)

2.1. Kontratu erreserbatuak (11/2014 Foru Arauaren 5 art.tik 8.era bitartekoak)

Kontratu Erreserbatuen bidez edozein Administrazio Publikok lizitazioan “parte hartzea erreserba” dezake Enplegu Zentro Berezientzat eta Laneratzeko Enpresentzat bakarrik, hau da, era horietako enpresak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, dituzten ezaugarri bereziak, izaera arautua eta onura soziala kontuan izanda.

Aukera hori espresuki aurreikusten eta arautzen dute: 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, Bosgarren Xedapen Gehigarrian; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Direktibak, 2014ko otsailaren 26koak, kontratazio publikoari buruzkoak, 20. artikuluan; eta 2004/18/EE Direktibak 19. artikuluan.

Laneratzeko Enpresek enplegu normalizatua lortzeko aukera ematen diete gizartean egoera ahulean edo baztertuta daudenei, 2007ko abenduaren 13ko 44/2007 Legeak, laneratzeko enpresen erregimena arautzekoak, zehaztutako figura juridiko espezifiko baten bidez (EAEn, 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena). Plantillaren %30 eta %50 bitartean gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak osatuko dute. ABestalde, Enplegu Zentro Berezia izateko, plantillaren %70 gutxienez, %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langileek osatu behar dute, Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazioa lortu behar da, eta dagokion erregistroan inskribatuta egon. 2273/1985 Errege Dekretuak arautzen ditu, abenduaren 4koak, Enplegu Zentro Berezien Erregelamendua onartzen duenak.

Kontratuaren xede diren obrak egiten dituen edo hornikuntzak eskaintzen dituen Laneratzeko Enpresarik edo Enplegu Zentro Berezirik dagoen begiratzea gomendatzen dugu, eta, baldin badago, kontratua erreserbatu gisa kalifikatzeko aukera kontuan izatea. Horretarako, direktorio hauek kontsulta daitezke:

<www.gizatea.net/catalogo_sect_act.php>

<www.direktorioa.net/resultado_busqueda.php?xentidad=1&xcentro=1&nombre=&abreviatura=&desde=1&anno1=&anno2=&poblacion=&territoriohistorico=&titularidad=&ambito=&tipocentro17=3&pocentro18=3ti&orden=nombrecas&sentido=asc&Submit=Buscar>

Prozedura

1. Erreserbatzea edo kontratu erreserbatu gisa kalifikatzea ez da nahitaezkoa. Kontratazio organoak erabaki beharko du kasu bakoitzean, egoki deritzon, kontratua gauzatzeko eskulan intentsiboa behar denean, eta langileei laguntzeko eta jarraipen egokia egiteko aukera ematen duenean (6.1 artikulua).
2. Dena dela, Lurralde Historikoko urteko aurrekontu orokorrak ezartzen dituen foru arauak finkatuko du kontratu erreserbatuetarako gutxienez jarriko den zenbatekoa, eta, beraz, Foru Aldundiko Departamentu bakoitzak eta foru sektore publikoko gainerako entitateek urtean zenbateko bat erreserbatu beharko dute kontratu erreserbatuetarako.
3. Oso interesgarria da kontratua zatikatzeko edo loteak ezartzeko aukera, horrela errazagoa delako prestazio osoaren zati bat kontratu erreserbatu gisa kalifikatzea (6.2 artikulua).

4. Irabazi asmorik gabeko entitateak izanik, behin-behineko eta behin betiko bermeak jartzetik salbuetsi ahal izango dira (eta horrela adieraziko da orrietan) (7.1 artikulua).
5. Erreserbaren entitate onuradunek legez eraturata egon beharko dute, kalifikatua, eta, hala dagokienean, erregistratuta (8. artikulua).

2.2. Desgaitasuna duten langileen kuota betetzea (11/2014 Foru Arauaren 9. art.).

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak (eta 13/1982 Legea, minusbaliatuak gizarteratzeko, indargabetzen duenak), 42.1 artikuluan arautzen du desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba kuota, eta 100ko 2an finkatzen du 50 langile baino gehiago dituzten enpresentzat.

Baina bestelakorik dio errealitateak, izan ere, enpresen %80k ez baitute betetzen baldintza hori. Horregatik, Foru Arauaren 9. artikulua ezartzen du, gaitasun irizpide gisa, nahitaez bete behar dela lege betekizun hori, edo ordezeko neurriak bestela.

Prozedura

1. Administrazio klausulen orrietan nahitaez zehaztu behar da, lizitatzailerak aurkeztu behar duten dokumentazioaren artean, %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langileek plantillaren %2 osatzen dutela egiaztatzen duen agiria, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak –azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak– agindutakoa betetzen dela erakusteko.
2. Horretarako, ziurtagiri bat edo erantzukizunpeko deklarazio bat eskatuko zaio enpresari, guztira zenbat langile dituen, eta horietatik zenbatek duten desgaitasuna adierazteko, edo ordezeko neurriak betetzen dituela azaltzeko.
3. Lizitazioa ebatzi ondoren eta kontratua formalizatu aurretik, esleipendunari eskatu beharko zaio froga dezala portzentaje hori benetan betetzen duela, desgaitasun ziurtagirien edo bestelako frogabide onargarriren bidez, edo, salbuetsita badago, aurkez ditzala salbuespen deklarazioaren kopia eta hartutako neurri alternatiboen deklarazioa, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, ezarritakoaren arabera.

2.3. Kaudimena hizkuntza arloan

Bi arau dira kontuan hartu beharrekoak erreferentzia gisa: Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa, administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa; eta Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, irizpide sozialak, ingurumenari buruzkoa eta beste politika publiko batzuk autonomia erkidegoko administrazioan eta haren sektore publikoan eta kontratazioan sartzeari buruzkoa, 2008ko apirilaren 29an onartua.

Batak ere ez die erreferentzia zehatzik egiten hizkuntza arloko kaudimen tekniko edo profesionalaren baldintzei, baina, hala ere, gai hau lotu behar da Foru Arau honetan aurreikusitako gauzatze

baldintzekin eta arau horietan adierazitakoekin. Horren arabera, gaitasun hori eskatu beharko zaie enpresa edo entitate lizitatzaileriei.

Prozedura

1. Kontratazio iragarkian, administrazio klausula berezien karatulan eta orrietan (edo dokumentazio baliokidean, edo eskaintza eskaeretan) ohartaraziko da zein diren hizkuntzari dagokionez bete beharreko baldintzak, edo nolako konpromisoa eskatzen den kontratazioa egiten denean hizkuntzari buruz indarrean dagoen erregimen juridikoak agindutakoa betetzeko behar adina langile jartzeko edo atxikitze kontratua gauzatzeko.
2. Horretarako, kaudimen teknikoko baldintza bat dela kontuan izanda, lizitatzaileriek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo beste frogabideren bat erabili, hizkuntzaren arloko gaitasuna betetzen dutela frogatzeko; eta, gero, esleipendunak egiaztatu egin beharko du kontratua gauzatzeko fasean.

3. Esleitzeko irizpideak (11/2014 Foru Arauaren III. Kapituluak)

Prozedura

1. **Nahitaez sartu beharra** (11. Artikulua): administrazio klausula berezien orrietan edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazio baliokidean (kontratu txikietan izan ezik), **esleipen irizpide bat edo hainbat jasoko dira**, kontratuaren xedearekin lotura zuzena duten alderdi sozialak edo ingurumenekoak kontuan hartzeko. Irizpide horiek balioespen alderdi bat edo hainbat jaso ditzakete (12.2 Artikulua).
2. **Salbustea eta txosten arrazoitua** (12.3 Artikulua): kontratazio organoak, **salbuespenez**, erabaki dezake kontratuaren ezaugarriak ez direla egokiak izaera sozialeko edo ingurumeneko esleipen irizpideak sartzeko, edo aurreko apartatuan aurreikusitakoa baino pisu txikiagoa eman diezaieke. Horrelakoetan, zuritu beharko da zergatik ez diren komeni irizpide horiek, espedientearekin batera joango den **txosten arrazoitu** batean.
3. **Pisua** (12.3 Artikulua): esleipen irizpide sozial eta ingurumenekoek **gutxienez %10eko pisua izango dute osoko puntuazioan. Obra kontratuetan gutxienerako pisua osoko puntuazioaren %5 izango da.**
4. **Zehaztea** (12.1 Artikulua): esleipen irizpide gisa ezartzen diren alderdi sozial eta ingurumenekoak **zehazki adieraziko dira**, enpresa lizitatzailerak guztiak baldintza beretan ezagutu eta interpretatu ahal izan ditzaten kontuan hartuko diren alderdiak eta balioespen sistema. Orobat, horrek balio izango du kontratazio organoak eskaintzen balioespen konparatibo bat egiteko.
5. **Balio sozial ezohikoak edo neurritz kanpokoak** (12.4 Artikulua): neurritz kanpoko edo ezohiko balioak dituzten eskaintzak zehazte aldera, horrelako balioen ondorioz kontratua betetzea ezinezkoa dela irizteko parametro objektiboa izango da **eskaintzan agertzen diren prezioak baxuagoak izatea** kontratuari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan **kategoria profesional bakoitzerako ezarrita dauden gutxienerako soldaten kostua baino**; egoera horrek eskaintza baztertua ekarriko du.
6. **Aldagarriak** (13. Artikulua): **kontuan har ditzake** lizitatzailerak eskaintzen dituzten izaera sozialeko eta ingurumeneko alderdiei buruzko **hobekuntzak edo aldaketak**, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badute. Lizitazio iragarkiak eta administrazio klausulen orriek edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazio baliokideak berariaz aipatu beharko dute badagoela aukera hori, zehaztuta zer elementuren gainean eta zer baldintzapetan aurkez daitezkeen.
7. **Kontratu betekizuna** (11.3 Artikulua): enpresa **esleipendunak** proposamen teknikoan esleipen irizpideei buruz **hartzen dituen konpromisoak kontratuaren edukian sartuta geratuko dira kontratu betekizun gisa.**
8. **Ez betetzea** (14. Artikulua): **konpromiso horiek bete ezean, kontratua amaitutzat joko da** baldin eta betekizun horiek funtsezko izaera badute, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateginaren 223.F) artikuluari jarraikiz; **bestela**, arau horrek 212.1 Artikuluan aurreikusten den **zigorra ezarriko da**, zeinaren zenbatekoa kontratuaren **aurrekontuaren %10 artekoa** izango baita, ez betetzearen larritasunaren arabera.
9. **Obrak**. Foru arauak ez du zehazki aurreikusten esleipen irizpiderik baina kontuan izan behar dira horrekin lotutako bi manu zehatz: berdinketa hausteko irizpidea (9. Artikulua), eta soldata kostuei buruzko ez ohiko balioei edo neurritz kanpokoek buruzko aurreikuspena.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna.	Genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri teknikoa denean.	<p>Nahitaez sartu behar dira esleipen irizpide sozialak edota ingurumenekoak (kontratuaren ezaugarriek ezinezko egiten ez badute).</p> <p>Kontratazio organoak erabakiko ditu Orrietan sartu nahi dituen esleipen irizpideak (bat edo gehiago).</p> <p>Irizpiderik sartzen ez badu edo gutxieneko pisua ematen ez badie, txosten bat idatzi beharko du salbuespena arrazoitzeko.</p>
Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten enplegua sustatzea.	Kontratuaren xedea lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten enplegua sustatzea denean.	
Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudeneztat enplegua sustatzea.	Kontratazioaren xedea gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenen enplegua sustatzea denean.	
Proposamenaren kalitate soziala.	Aukerakoa, kontratazio organoarentzat eskaintza onuragarriagoa denean.	
Ingurumena.	Kontratuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.	
Lehentasuneko edo berdinketa hausteko irizpidea. Ez ohiko balioak edo neurriz kanpokoak	Obretarako bakarrik (4/2013 FA).	

Kasu eta kontratu batzuetan ez da izango baldintza horiek bete beharrik: genero ikuspegia ezaugarri teknikoa ez denean; kontratuaren xedea ez denean lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak edo gizartetik baztertua geratzeko arriskua dutenei enplegua ematea; proposamenaren kalitate sozialak eskaintza onuragarriagoa adierazten ez duenean; edo kontratuaren ezaugarriek uzten ez dutenean ingurumen irizpiderik sartzen.

Zirkunstantzia horiek denak gertatzen direnean, alde batera utziko da esleipen irizpide sozialak aplikatzea, alde aurretik txosten arrazoitua egin eta espedienteari erantsita. Kontuan izan, txosten arrazoituan azaldu behar dela aukera horietako bat ere ez dela posible, bestela, posible den hura sartu egin beharko litzatekeelako.

Esleipen irizpide sozial eta ingurumenekoak sartzeko eremua

Emakumeen eta gizonen berdintasuna (15. Artikulua).

Genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri teknikoa denean, alderdi hauetako bat edo gehiago balioetsi ahal izango dira:

- a) **Lanerako plan bat.** Bertan jasoko dira enpresa edo entitate lizitatuak zein ekintza zehatz proposatzen dituzten kontratuaren prestatze dokumentazioan **emakumeen eta gizonen berdintasun arloan ezarri diren helburuak betetzeko.**
- b) Enpresa edo entitate lizitatuaren **konpromisoa emakume gehiago kontratatzeko emakumeen okupazio indize baxuko sektoreetan**, betiere kopuru hori kontratuaren gauzatze

baldintza gisa ezarritakoa baino altuagoa bada, batetik, eta, bestetik, gutxienez bost puntu altuagoa bada genero eta jarduera motaren arabera biztanleria aktiboaren Eustaten datu estatistikoetan jasotako batez besteko portzentajea baino.

- c) **Kontratua gauatzeko, ardura postuetan emakume gehiago kontratatzeke konpromisoa.**
- d) **Enpresa lizitatuak Berdintasun Plan bat aurkeztea** kontratuan aplikatzeko, zeinak, kontratuari dagokionez, enpresaren berdintasun politikak zehaztuko baititu. Hauek dira kontuan hartu beharreko alderdiak: lanpostua eskuratzea, sailkapen profesionala, lan kalitatea eta egonkortasuna, lan egunaren iraupena eta antolaketa, prestakuntza, sustapena, soldata, lan arriskuen eta lan osasunaren prebentzioa, sexu jazarpena eta sexu ondoriozko laneko jazarpena saihesteko prebentzioa, eta beste batzuk.
- e) **Bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko neurri zehatzak, nahiz emakumeen eta gizonen ardura partekatua sustatzeko neurriak** enpresa lizitatuak kontratua gauzatuko duen langile taldeari aplikatzeko, beti ere gizonen eta emakumeen benetako berdintasunari buruzko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak ezarritako minimoak hobetuz; bereziki, baliabide propio, pribatu edo sozio-komunitarioak izatea adingabeei eta mendekoei arreta emateko: zerbitzu txekak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak, hobekuntzak lan jardunaldian, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegi malgua, edo zerbitzuak moldatzea edo birzuzentzea.

Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten enplegua sustatzea (16. artikulua):

1. Esleipen irizpide bat jaso ahal izango da enpresa edo entitate lizitatuak kontraturako enplegatuko dituen eta lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen portzentajea balioesteko, baldin eta kontratuak xede badu pertsona horien enplegua sustatzea. Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen portzentajeak handiagoa izan beharko du baldintza teknikoan kontratua gauatzeko ezarritako gutxienerako portzentajea baino. Lan merkatuan sartzeko zailtasuna duten pertsonatzat joko dira Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez aldiro zehazten diren taldeetan sartzen diren pertsonak.
2. Enpresa edo erakunde esleipendunak ezartzen duen portzentaje minimoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da kontratua gauatzeko enplegatuko diren langile guztien urteko lan ordu guztiak, azpikontratutako enpresatako edo entitateetako langileen orduak barne. Eta kontuan izango dira kasuan kasu azpikontratutako enpresa edo entitateek kontratatuak dituzten pertsonen lan orduak, bai xede nagusizat lan aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen lan merkaturatzea duten enpresa edo entitatekoak, bai gainerako enpresa edo entitatekoak ere.
3. Enpresa edo entitate lizitatuak proposamenetan zehaztu beharko da zenbat pertsona beharko diren kontratua gauatzeko eta zenbat kontratu egingo diren artikulua honetan aipatu betekizuna betetzeko, langile bakoitzaren urteko lanorduak zehaztuz.

Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzat enplegua sustatzea (17. Artikulua).

1. Kontratuaren xedea gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzako enplegua sustatzea bada, esleipen irizpide bat jaso ahal izango dute enpresa lizitatuak halabeharrez aurkeztuko duten gizarteratze proiektua balioesteko.

2. Eskumeneko zerbitzu publikoek egiaztatuko dute bazterkeria egoera edo arriskua. Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politikako Departamentuaren proposamenez, gizarte bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsona taldeak zehaztu ahal izango ditu.
3. Gizarteratze proiektuak alderdi hauek zehaztu beharko ditu, kontratuaren baldintza teknikoek orri jarraikiz:
 - a) Enpresa edo entitate lizitatuak kontratatze asmoa duen **gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonen portzentajea**. Portzentajea kalkulatzeko, kontratua gauzatzeko kontratatuko diren langile guztien urteko lanorduak hartuko dira kontuan. Ondorio horietarako, kontuan izango dira kasu azpikontratatuak enpresa edo entitateek kontratatuak dituzten pertsonen lanorduak, bai xede nagusizat gizarte bazterkeria egoera edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea duten enpresa edo entitateetakoak, bai gainerako enpresa edo entitateetakoak ere.

Eskatzen den portzentaje baldintza teknikoek orrietan gauzatzeko baldintza gisa ezarritako portzentaje minimoa baino altuagoa izango da.
 - b) **Gizarteratzeko prozesuan laguntzen espezializatuak diren langile teknikoak.**
 - c) **Lan metodologia**, gizarteratzeko ibilbideak egiteko aurreikusten dena; eta gizarteratzeko bakarkako prozesuen ebaluazio adierazleak, haien operatibotasuna eta egokitasuna kontuan hartuta.
 - d) **Prestakuntza plan** orokorra eta berezia.
 - e) **Koordinazio proposamena, erakunde publiko eta pribatuekin**, kontratuaren xede diren gizarteratze zereginetarako.
 - f) **Gizarteratzeko kontratuak dituzten pertsonak ohiko lan merkatuan sartzeko** aurreikusten diren mekanismoak.

Proposamenaren kalitate soziala (18. Artikulua).

1. Esleipen irizpide bat jaso ahal izango da honako alderdi hauek balioesteko: aurkeztu diren proposamen teknikoak zenbateraino egokitzen diren zerbitzu publiko kontratatuen erabiltzaileen beharretara eta alor horretan jarduten duten eragileen koordinazio jardunera, hartara, kontratuaren gauzatzeari begira, eskaintza hobea izan dadin kontratazio organoarentzat.
2. Esleipen irizpideak alderdi hauetako bat, hainbat edo guztiak balioetsiko ditu, arrazoituz:
 - a) **Metodologia eta mekanismoak ezartzea**, kontratua diseinatu, hobetu, gauzatu eta ebaluatzeko zereginerako dagokion esparruko pertsona edo eragileek parte har eta erabaki dezaten: esaterako, organo kontratatzailea, profesionalak, zerbitzuaren erabiltzaileak edo onuradunak, edo esparru horretan laguntzen duten boluntarioak.
 - b) Kontratuaren xede den prestazio edo zerbitzuarekin lotura zuzena duen entitate publiko edo pribatuen jardunarekin koordinatzea eta jardun hori osatzea; bereziki hartuko da kontuan hirugarren sektorearekin jarduten denean.
 - c) Kontratua gauzatzen den aldian, lan sareetan parte hartzea eta lankidetzak akordioak sinatzea tokiko elkarte sarearekin interes sozialeko eta komunitate intereseko ekintzetan, betiere kontratuaren xederarekin zerikusi zuzena badute eta prestazioan eragiten badute.

- d) Boluntarioen parte hartzea kontratua gauzatzearekin zerikusia duten jardueretan, boluntario kopurua zehaztuta, zereginak deskribatuta eta kontratuko prestazioaren erabiltzaileen eta onuradunen arretarako dedikazioa zehaztuta, betiere kontratuarekin zerikusi zuzena ez duten zereginak egiten ez badituzte eta lanpostuak ordeztan ez badituzte.
- e) Kontratuaren edukia lurraldera, tokiko izaerara eta izaera soziokulturalera egokitzea.
- f) Kontratua gauzatzearen emaitza formalak jakitera ematea: kontratuaren garapenean, prestazioaren eta ondorioen inguruko argitalpen, azterketa edo komunikazioak, dela kontratua gauzatzen den bitartean, dela kontratuaren amaieran.
- g) Kontratuaren xede nagusi den jardura edo zerbitzuari buruzko informazio eta sentsibilizazio sozialeko jarduerak egitea.
- h) Zenbateko jakin bat interes sozialeko eta elkartasuneko proiektuetara bideratzea, baldin eta kontratatua izan den jardura hobe egiten edo zerbitzua hobe ematen laguntzen badute.
- i) Tokiko garapenean eta gizartearen kohesioan laguntzea, kontratuaren xedeari dagokionez.
- j) Zerbitzua irisgarria izatea desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala duten pertsonentzat.
- k) Proiektuaren edukia pertsona talde jakin batzuei moldatzea: bereziki baztertuak daudenei edo gizartearen babes handiagoa behar dutenei, hala nola, etorkinak, adinekoak, haurrak edo gutxiengo etnikoak.

Ingurumenari buruzko irizpideak (19. artikulua).

Esleipen irizpide bat jaso ahal izango da eskaintzen den produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen alderdiak balioesteko, baldin eta horiek baldintza teknikoek orrietan edo alorreko arauetan ezarritako minimoa baino harago badoaz, betiere kontratuaren ezaugarriek aukera hori ematen badute. Besteak beste, alderdi hauek hartu ahal izango dira kontuan:

- a) Natura baliabideen kontsumoa murriztea: esate baterako, lehengaiak, erregaiak eta ura.
- b) Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak ahalik eta gutxien sortzea; berrerabiltzea eta birziklatzea.
- c) Energia efizientzia eta energia berriztagarrien iturriak erabiltzea.
- d) Hainbat etiketa ekologiko, UNE 150301 ekodiseinuko araua eta produktu edo zerbitzuaren kalitatearen inguruko beste ikur batzuk betetzea; orobat, etiketa horietan definitzen diren errendimendu edo eskaera funtzionalak betetzen direla egiaztatzeko beste modu batzuk ere onartuko dira.
- e) Produktu ekologikoak, freskoak edota garaikoak erabiltzea jangelako eta cateringeko menuak egiteko, baita Jatorri Izendapen Babestua edo Adierazpen Geografiko Babestua duten produktuak ere, edo horien ezaugarri tekniko berberak dituztenak.
- f) Kontratuaren xede den zerbitzuaren ingurumen planak aurkeztea.
- g) Negutegi efektuko gasen emisioa murriztea: CO₂, HFC, PFC edo SF₆.

- h) Emisio kutsagarriak murriztea: partikulak (PM₁₀, PM_{2,5}), disolbatzaileak (COV) eta nitrogeno oxidoak.
- i) 2000ko urriaren 23ko 2000/60/CE zuzentarauak, uren politiken inguruan komunitate jarduera marko bat ezartzen duenak, lehenetsitako substantzien isuriak uretara murriztea.
- j) Ugalketarako arriskutsuak diren produktu edo substantzia karzinogenikoen, mutagenikoen eta toxikoen erabilera (CMR) ezabatzea edo murriztea; bereziki, R 50/53 arriskuko substantziak.
- k) Azken produktuan material birziklatuak eta kalterik egiten ez dutenak sartzea.
- l) Azken produktua biodegradagarria izatea.

4.

Gauzatze baldintzak

(11/2014 Foru Arauaren IV. KAPITULUA, eta 4/2013 Foru Arauaren 5 - 9 artikulua)

Prozedura

Nahitaez sartu beharra: administrazio klausula berezien orrietan edo prestatze dokumentazio baliokidean foru arauan aurreikusitako gauzatze baldintzak jaso beharko dira (22.1 Artikulua) “betiere kontratuaren ezaugarriek aukera ematen badute” (22.2 Artikulua).

Salbuestea eta txosten arrazoitua (22.3 Artikulua): kontratazio organoak erabaki dezake, **salbuespenez**, kontratuaren ezaugarriak ez direla egokiak kontraturako aurreikusten diren gauzatze baldintza bereziak sartzeko, edo zehazten direnak baino portzentaje edo betekizun apalagoak direla egokiak. Horrelakoetan, zuritu beharko da zergatik ez diren komeni irizpide horiek, espedientearekin batera joango den txosten arrazoitu batean.

Atxikimendu dokumentua (22.4 Artikulua): enpresa edo entitate lizitatuak atxikimendu eta konpromiso dokumentu bat aurkeztu beharko dute, adieraziz beteko dituztela alderdi sozialei, ingurumenekoei edo beste politika publiko batzuei buruzko gauzatze baldintza bereziak.

Ez betetzea (23. artikulua):

- **Ezarritako gauzatze baldintza bereziak bete ezean, kontratua amaituzat joko da**, baldin eta kontratu betekizunak oinarritzko izaera bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223.f) artikuluari jarraikiz.
- Bestela, arau horrek 212.1 artikuluan aurreikusten den zigorra ezarriko da, zeinaren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %10 artekoa izango baita, ez betetzearen larritasunaren arabera.
- Ez betetzeari funtsezko izaera eman zaionean edo oso larritzat jo denean, **kontratzea debekatzeko kausa** izatera ere irits daiteke, beti ere Sektore Publikoko Kontratu Legeak dioena betez.
- Luzapenik aurreikusi bada, **luzapenak emateko orduan ere kontuan izango da ez betetzea**. **Zehazki**, ez dira kontratuak luzatuko entitate esleipendunak alde bakarreko erabakiz **okerragotu badizkie kontratuari atxikitako langileei** esleipen unean indarrean zegoen hitzarmen edo paktuan **jasotako lan baldintzak**, eta kasu horretan, gainera, indarrean dauden kontratu prezioen kalkulua ere berrikusiko da.

<p>Zerbitzu kontratuak; zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak; hornikuntza kontratuak; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak; eta administrazio kontratu bereziak.</p> <p>11/2014 Foru araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza arloan: nahitaezkoa. - Berdintasun arloan: nahitaezkoa genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri teknikoa denean. - Emakumeen eta gizonen berdintasuna: nahitaezkoa bat edo gehiago. - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea: nahitaezkoa, kontratuaren zirkunstantziak aukerarik ematen badute. - Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudentzat enplegua sustatzea: nahitaezkoa, kontratuaren zirkunstantziak aukerarik ematen badute. - Irizpide etikoak eta merkataritza justukoak: nahitaezkoa, kontratuaren zirkunstantziak aukerarik ematen badute. - Langileen oinarrizko eskubideak ekoizpen katean eta lanaren nazioarteko erakundearen (lane) konbentzioak: aukerakoa, kontratazio organoak berariaz adierazten duenean egokia dela. - Enpleguaren kalitatea: nahitaezkoa, kontratuaren zirkunstantziak aukerarik ematen badute. - Gauzatze baldintza bereziak elikagaien erosketa publikoari dagokionez: nahitaezkoa, horrelako produktuak erabiltzeko aukera ematen duten kontratuak direnean. 	
<p>Obra kontratuak eta obra publikoen kudeaketa kontratuak</p> <p>11/2014 Foru araua, urriaren 29koa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta gizonen berdintasuna: nahitaezkoa bat edo gehiago. - Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea: nahitaezkoa, kontratuaren zirkunstantziak aukerarik ematen badute. 	
<p>4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan. - Azpikontratatzea. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea 	<p>Nahitaezkoa.</p> <p>Salbuespen txostena egiteko aukerarik ere ez da aurreikusten</p>

4.1. Zerbitzu kontratuak; zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak; hornikuntza kontratuak; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak; eta administrazio kontratu bereziak.

Gauzatze baldintzak hizkuntza arloan (20. artikulua).

Foru sektore publikoko kontratazio organoek egindako kontratuak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araudia bete beharko dute, hala nola, Euskadiko Estatutuaren 6. artikulua, 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa, eta gaiari buruzko gainerako autonomia eta foru araudia.

Gauzatze baldintzak berdintasun arloan (21. artikulua).

1. Genero ikuspegia bera kontratuaren xedeari ezaugarri tekniko bat bada, kontratuaren baldintza teknikoaren orrietan honako eduki hauek jasoko dira:

a) Azterketa berezia kontratuaren eremuan emakumeek eta gizonen bizi duten egoeraren gainean, kontratuaren bidez lortu nahi diren helburuen zehaztapena eta helburu horiek lortzeko neurriak, enpresa edo entitate esleipendunak bete beharko dituenak; enpresa edo entitate lizitatuak aurkeztu beharreko proposamen teknikoan plan bat aurkeztu beharko da, berdintasun arloko berriazko prestakuntza duen teknikariak egina, neurri horien aplikaziorako ekintzak zehazten dituenak.

Halaber, aipatu dokumentazioan ezarri ahal izango da kontratua eskuratu nahi duten enpresa edo entitateek aurkeztu beharko dutela ezarritako helburuak betetzeko ekintza zehatzak; kasu horietan esleipen irizpide moduan baloratuko dira, 15 a) atalak ezarritakoarekin bat.

b) Memoria bat aurkeztu beharko dela kontratuaren objektuaren betetzea justifikatzeko dokumentazioan; bertan aipatu beharko dira kontraturiko zerbitzuen erabilizailerik edo onuradunen eta kontratua gauzatu duen lantaldeko pertsonen datu bereziak, eta dagokion adierazleak, beti ere hartutako neurrien eragina zein izan den ebaluatzeko. Inpaktuari buruzko memoria berdintasun eremuan berriazko trebakuntza duen teknikari batek egin beharko du.

2. Aurreko atalaren ondorioetarako, genero ikuspegia ez denean kontratuaren xedetzat jotzen, hori justifikatzeko txosten arrazoitua aurkeztu beharko da.

Gauzatze faseko baldintza bereziak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez (24. artikulua).

Administrazio klausula berezien orriek edo dagokion dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi hauek, edo antzeko beste batzuk, jasoko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

a) Enpresa esleipendunak berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarriko ditu, arlo hauetan: lanpostua eskuratzea; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; ordainketak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, diogenari jarraikiz.

b) Sektoreren batean emakumeen presentzia urria bada, enpresa esleipendunak emakume portzentaje jakin bat kontratatu beharko du kontratua gauzatzeko. Portzentaje horrek bost puntu altuagoa izan beharko du gutxienez, genero eta jarduera motaren arabera biztanleria aktiboaren Eustaten datu estatistikoetan agertzen dena baino.

Orriek berek zehaztu beharko dute zenbatekoa den emakumeen batz besteko portzentajea jarduera sektore horretan Eustaten datuen arabera.

c) Enpresa edo entitate esleipendunak sortzen duen dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, berdintasun balioak dituenak, emakume eta gizonen presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua eta rol eta genero identitate plurala.

d) Enpresa edo entitate esleipendunak bermatu egin beharko du behar adina neurri hartuko direla sexu jazarpena eta sexua dela-eta laneko jazarpena prebenitzeko, baldin eta kontratua gauzatzeko langile taldean hamar langile baino gehiago badaude.s.

Gauzatze baldintza bereziak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzeko (25. artikulua).

1. Administrazio klausula berezien orriek edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzeko, baldin eta kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen badute.

2. Enpresa edo entitate esleipendunak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu behar ditu: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10. Zenbaketa hori egiteko, kontuan hartuko dira enpresek edo entitate azpikontratatuak prestazioa zati batean gauzatzeko enplegatzen dituzten pertsonak.

Portzentaje hori kontratua gauzatzeko enplegatuko diren langileen urteko lanordu guztien gainekoa izango da. Ondorio horietarako, kontuan izango dira kasuan kasu azpikontrataturako enpresa edo entitateek kontratatuak dituzten pertsonen lan orduak, bai xede nagusitzat lan aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen lan merkaturatzea duten enpresa edo entitatekoak, bai gainerako enpresa edo entitatekoak ere.

3. Lan merkatuan sartzeko zailtasun berezia duten pertsonatzat joko dira Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez aldiro zehazten diren taldeetan sartzen diren pertsonak.

4. Enpresa edo entitate esleipendunak dokumentazio honen bidez egiaztatuko du proposamen teknikoan hartutako konpromisoak betetzen dituela:

a) Kontratua sinatuta, hilabeteko epean, enpresa edo entitate esleipendunak pertsona hautatuen inguruko datuak jakinaraziko ditu, eta, horrekin batera, Gizarte Segurantzako altaren eta lan kontratuaren kopia aurkeztuko ditu.

b) Hilero eta kontratuak irauten duen bitartean, enpresa esleipendunak TC1 eta TC2 dokumentuak eta matrikula liburua aurkeztu beharko dizkio kontratuaren arduradunari, betekizuna egiaz bete dela egiaztatzeko.

Kontratuaren arduradunak dokumentazio hori edo beste bat eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari, hartara kontratuaren betetze maila kontrolatzeko eta ebaluatzeko; orobat eskatu ahal izango dio jarraipen bilerak egitea eta aldizkako ebaluazio txostenak ematea.

Dokumentazio hori aurkeztu beharra kontratua arautuko duten administrazio klausula berezien orrietan jasoko da.

5. Langileak subrogatu behar badira, edo beste egoeraren bat gertatzen bada kontratua gauzatzerakoan eta ezin bada portzentaje hori bete, enpresak profil horretako langileak kontratatu beharko ditu kontratuaren iraunaldian behar dituen kontratazio, baja edo ordezkapen guztietan, harik eta portzentaje horretara iritsi arte.

Gauzatze baldintza bereziak gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudeneztat enplegua sustatzeko (26. artikulua).

1. Administrazio klausula berezien orriek edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute, hartara gizarte bazterkeriaren arriskuan edo egoeran dauden pertsonen insertzio soziolaborala sustatzeko, baldin eta kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen badute.

2. Enpresa edo entitate esleipendunak gizarte bazterkeriaren arriskuan edo egoeran dauden pertsonak kontratatu behar ditu: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10. Zenbaketa hori egiteko, kontuan hartuko dira enpresek edo entitate azpikontratatuak prestazioa zati batean gauzatzeko enplegatzen dituzten pertsonak.

Portzentaje hori kontratua gauzatzeko enplegatuko diren langileen urteko lanordu guztien gainekoa izango da. Ondorio horietarako, kontuan izango dira kasuan kasu azpikontratatuak enpresa edo entitateek kontratatuak dituzten pertsonen lanorduak, bai xede nagusitzat gizarte bazterkeria egoera edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea duten enpresa edo entitateetakoak, bai gainerako enpresa edo entitateetakoak ere.

3. Artikulu honen ondorioetarako, eskumeneko zerbitzu publikoek egiztatuko dute bazterkeria egoera edo arriskua. Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politikako Departamentuaren proposamenaz, gizarte bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsona taldeak zehaztu ahal izango ditu.
4. Administrazio klausula berezien orriek edo dagokion dokumentazio baliokideak zehaztuko dute zenbat teknikari espezializatu behar diren langileei gizarteratzen laguntzeko kasu bakoitzean. Laguntza hori zerbitzu publiko eskumendunek egin ahal izango dute, beren eskumeneko esku hartze soziolaboraleko programen markoan.
5. Langileak subrogatu behar badira, edo beste egoeraren bat gertatzen bada kontratua gauzatzekoan eta ezin bada portzentaje hori bete, enpresak profil horretako langileak kontratatu beharko ditu kontratuaren iraunaldian behar dituen kontratazio, baja edo ordezkapen guztietan, harik eta portzentaje horretara iritsi arte.

Gauzatze baldintza bereziak irizpide etikoei eta merkataritza justuari dagokienez (27. artikulua).

1. Administrazio klausula berezien orriek edo dagokion dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute enpresa edo entitate esleipendunak zerbitzua ematean edo hornidura entregatzean merkataritza justuko produktuak erabil ditzaten, beti ere kontratuaren ezaugarriek aukera ematen badute.
2. Betekizuna hauen ingurukoa izango da:
 - a) Hainbat produktu erabili beharra, esaterako, kafea, tea, infusioak, kakaoa, ehunkiak edo beste batzuk.
 - b) Hainbat produkturen aurrekontu guztiaren zenbateko edo portzentaje bat merkataritza justuko produktuei gorde beharra.
3. Merkataritza justuko produktuak erabiltzen direla egiaztatzeko, nazioarte mailan dauden bi berme-sistemetak bat erabili beharko da: WFTO egiaztagiria, Merkataritza Justuko Munduko Antolakuntzak ematen duena, zeinak entitateak abalatzten baititu; edo Fairtrade zigilua, Merkataritza Justuaren Zigiluaren Antolakuntzak ematen duena, zeinak produktuak egiaztatzen baititu eta edozein enpresarentzat baita irisgarri. Baliokidea den beste edozein agirik ere baliokidua.
4. Kontratazio organoak berariaz adierazten duenean egokia dela, hornikuntza kontratuetako klausula berezien orriek gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute, zeinak ezarriko baitu langileen oinarrizko eskubideak errespetatu behar direla ekoizpen kate osoan, baita Labaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako oinarrizko konbentzioak ere. Bereziki:

- a) 29. eta 105. konbentzioak, bortxazko lanak desagertzeari buruzkoak.
- b) 87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- c) 100. konbentzioa, balio berdineko lanetan gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin ordaintzari buruzkoa.
- d) 111. konbentzioa, lana emateko edo lan baldintzak ezartzeko orduan arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, estrakzio nazionala edo jatorri soziala direla-eta diskriminatzearen aurkakoa.
- e) 138. konbentzioa, umeen esplotazioa eta lana ezabatzeari buruzkoa.
- f) 182. konbentzioa, hurren lan txarrenak debekatzeari eta berehala ezabatzeko ekintzari buruzkoa.

Enpresa lizitatzailerak horiek betetzen direla egiaztatu beharko du:

- a) SA 8000/Fair Wear Foundation, Made in Green edo baliokide den jarraibide kodearen egiaztagiraren bidez.
- b) Kanpoko enpresek egindako auditoria sozialeko egiaztagiraren bidez.
- c) Zinpeko aitortpenaren bidez edo zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez, zein erakusten baitu betetzen direla Europako Parlamentuaren 2005/2245 (IMI) Ebazpenak merkataritza justuari eta garapenari buruz ezarritako estandarrak.

Gauzatze baldintza bereziak enplegu kalitateari eta oinarrizko lan eskubideei dagokienez (28. artikulua).

1. Foru sektore publikoko entitateen kontratazio prozeduretako administrazio klausula berezien orriek edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute, kontratuaren ezaugarriek hala ahalbidetzen badute, helburu honekin: kontratua gauzatuko duten langileen lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden legezko xedapenak eta erregelamenduei buruzko xedapenak betearaztea.

Zehazki, gauzatze baldintza berezi horren bidez enpresa edo entitate esleipendunari betearazi nahi zaizkio enpresa kontratistaren jardura sektoreko eremu txikieneko azken lan hitzarmen sektorialean ezarritako baldintzak, beti ere kontratuari atxikita dauden langileei dagokienez, eta indarrean egon litezkeen eta hitzarmen horietan ezarritakoa hobe dezaketen enpresako beste hitzarmen edo paktuen kalterik gabe.

Enpresa edo entitate esleipendunak aipatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu dezan kontratazio organoaren aurrean, administrazio klausula berezien orriek ezarritako dute nola egiaztatuko den bete direla Gizarte Segurantzako kotizazio betekizunak eta kontratua gauzatzeari lotutako langileen kontratuak formalizatzeko betekizunak eta laneko segurtasun zein osasunari buruzko dokumentu hauek egin direla: lan arriskuak prebenitzeko plana, laneko segurtasun zein osasunarentzako arriskuen ebaluazioa, prebentzio jardueraren plangintza.

2. Aurreko atalean aipatu gauzatze baldintza bereziak barne hartzen du enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratatzaren dituen enpresei betekizun horiek betearazteko zeregina.

Ondorio horietarako, administrazio klausula berezien orriek, edo, hala badagokio, kontratazioaren prestatze dokumentazioak ezarri beharko dute enpresa edo entitate esleipendunak kontratazio

organoaren aurrean egiaztatu egin beharko duela enpresa edo entitate azpikontratatuak bete dituela artikulua honetan aipatzen diren betekizunak.

Zehazki, dokumentazio horretan, gutxienez, honako betekizun hauek ezarriko dira, 4. artikulua 3. atalean ezarritakoaren kalterik gabe:

- a) Azpikontratatuak jarduerari ekin aurretik, azpikontratatuak enpresa edo entitateetako langileen Gizarte Segurantzako alta eta afiliazioa egiaztatzea eta hori kontratazio organoari jakinaraztea.
 - b) Azpikontratatuak jarduerari ekin aurretik, lan kontratuak indarrean aplikagarri den araudiarekin bat egin direla egiaztatzea eta hori kontratazio organoari jakinaraztea.
3. Halaber, gauzatze baldintza berezi bat ezarri ahal izango da, baldin eta kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen badute, zeinaren arabera enpresa esleipendunak kontratua gauzatzera bideratzen dituen langileen arteko %30a kontratu finkodunak izan beharko diren; ekonomia sozialeko enpresa bada, portzentaje hori langile bazkideena izango da.
4. Kontratazio organoak edonoz eskatu ahal izango dio kontratistari erakuts ditzala betekizun horiek bete direla egiaztatzen dituzten dokumentuak; orobat, jarraipen bilerak edo aldizkako ebaluazio txostenak eska ditzake, betiere betekizun horiek betetzen direla zaintzearen.

Gauzatze baldintza bereziak elikagaien erosketari dagokionez (29. artikulua).

1. Administrazio klausula berezien orriek edo dagokion dokumentazio baliokideak gauzatze baldintza berezi bat jasoko dute, baldin eta kontratuak nekazaritza produktuekin zerikusia badu, zeinaren arabera eskatuko baita produktu ekologiko, fresko edota garaikoak, Jatorri Izendapen Babestua edo Adierazpen Geografiko Babestua duten produktuak, nahiz horien baliokideak kontsumitzea zerbitzuaren prestazioan edo hornikuntzaren edukian.
2. Betekizun hori, kontratazio organoak zehaztuko duena, honela ezartzen da:
 - a) Hainbat produktuen gainean: barazkiak, fruta, haragia, esnekiak edota arraina, besteak beste.
 - b) 1. atalean aipatu produktuentzat zenbateko edo portzentaje jakin bat ezarri, betiere produktu horientzat gordetako aurrekontu osoaren gain.
3. Pertsona edo entitate esleipendunak elikagai horien dagokien faktura eta ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu hiru hilean behin, adieraziz bai horien pisua, bai ziurtagiria ematen duen kontrol agintari edo erakundea.
4. Foru arau honen ondorioetarako, nekazaritza ekologikotzat joko da honako hau, ekologia produktuen ekoizpenari eta etiketatuari buruzko 2007ko ekainaren 28ko CE 834/2007 Erregelamenduari jarraikiz: baliabide naturalak egoki erabiltzen dituen nekazaritza laborantza sistema, modu iraunkorrean eta orekatuan, produktu kimikoak edo genetikoki aldatuak izan diren organismoak erabili gabe, ez ongarrizko, ez plagei aurre egiteko, hartara elikagai organikoak lortzeko, lurrik emankor jarraitzeko eta ingurumena errespetatzeko.

Egiaztatzea, elikagai horien etiketan ES-ECO-026-VAS kodeak eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEEK) zigiluak agertu behar dute; bestela, produktuaren benekotasuna egiaztatzen duen entitatearen izena eta kodea.

5. Foru arau honen ondorioetarako, produktu freskotzat joko da Elikagaien Espainiar Kodearen testua onartzen duen 1967ko irailaren 21eko 2486/1967 Dekretuan produktua freskotzat jotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen, baita produktu bakoitzaren araudi espezifikoak horretarako ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen ere.
6. Foru arau honen ondorioetako, garaiko produktutzat joko dira administrazio klausula berezien orrietan edo dagokion dokumentazio baliokidean nahitaez jaso beharko den garaiko elikagaien egutegian ezartzen direnak.

4.2. Gauzatze baldintzak obra kontratuetan eta obra publikoak kudeatzeko kontratuetan

Obra kontratuetan kontuan izan behar da bi Foru Arauak aplikatu behar direla koherentziaz.

11/2014 Foru Arauari, urriaren 29koari, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoari, dagokionez, lehen transkribatutako 24. eta 25. artikulua bakarrik aplikatu behar dira gauzatze baldintzei buruz.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** nahitaezkoa da ezarrita dauden baldintzetako bat edo gehiago sartzea.
- **Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenen enplegua sustatzea:** esleipendunak lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu behar ditu nahitaez: gutxienez, kontratua gauzatuko duten langile guztien %10.

Eta espezifikoki aplikatu behar dira 2013ko uztailaren 17ko **4/2013 Foru Arauaren**, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoaren, 5., 7. eta 8. artikulua.

Lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloa (5. artikulua).

Obra kontratuetako baldintza administratibo berezien agiri guztietan txertatu beharko da lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetako betebeharrak betetzeko honako klausula hau:

1. Kontratatik lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden lege, arau eta hitzarmen guztiak bete behar ditu. Bereziki, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboan edo, hala gertatuz gero, berrikusitako hitzarmen kolektiboetan jasotzen diren lan baldintzak, eta berak izango du gerta litezkeen lan istripuei dagokien erantzukizun guztia. Hain zuzen ere, zuzen, zorrotz eta bere kontura bete behar du Segurtasun eta Osasun Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen 1997ko urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan eta agiri honetan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua izan behar duena. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratatik ez baditu betebeharrak horiek betetzen.
2. Kontratatik, orobat, zuzen beharko du, dagokion datuak azpikontratutako enpresa orori eskatu eta gero, ezen enpresa azpikontratatuak ere, obrak gauzatzean, lan eta gizarte segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituela eta, zehazkiago, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebeharrak guztiak aplikatzen dituela.
3. Enpresa kontratatik Gipuzkoako eraikuntza sektoreko sindikatu handienetako ordezkariari obretara sartzen utzi beharko die, hartara lan arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta lan baldintzei buruzko araudia betetzen dela ikuska dezaten.

4. Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa esleipendunaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.
5. Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren arabera, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.

Azpikontatazioaren arloan (7. artikulua).

Obra kontratu etako baldintza administratibo berezien agirietan, enpresa esleipendunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin kontratatu dezakeela aurreikusi denean, honako klausula hau txertatu beharko da, aukera hori arautzeko eta enpresa esleipendunak izango dituen betebeharrak zehazteko:

- 1.1. Kontratistak beste norbaitekin hitzartu dezake lanaren zati bat hark egitea. Enpresa esleipendunak hirugarrenekin azpikontatutako zatiak edo zatiek ezingo dute gainditu kontratuaren ezaugarrien taulan zehaztutako portzentajea.

Azpikontatuak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 227. artikuluko 2. atalak xedatutakoa bete beharko da.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 227.2 artikulua ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, artikuluko 3 eta 4. atalek ezarritakoa aplikatuko da.
3. Enpresa kontratistak enpresa azpikontatistei egin beharreko ordainketak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 228 artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharko dira.
4. Enpresak kontratistak, gainera, honako betebehar hauek izango ditu:

a) Enpresa kontratistak azpikontatazio prozesuan bete egin beharko ditu 2006ko urriaren 18ko 32/2006 Legeak, eraikuntzaren arloan azpikontatazioa arautzekoak, ezarritako arauak, baita laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontatista orori ere araudi hori betearaziko dio. Hain zuzen ere, egiaztatu egin beharko du azpikontatzen duen enpresa orok kontratua gauzatzeko honako betebehar hauek betetzen dituela:

- Jarduera aurrera eramateko eta lanen zuzendaritza zuzenean gauzatzeko bitarteko egokiak eta gutxienezko azpiegitura bat duela, eta ez dela legez kontrako langileen lagapenik eman.
- Langileek laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezkoa den prestakuntza dutela.
- Prebentzio antolakuntza egokia duela.
- Dagozkion betebehar guztiak betetzen dituela laneko segurtasun eta osasun arloan eta, zehazki, prebentzio jarduerak koordinatzeari buruzkoak eta beharrezkoak diren prebentzio baliabideak baliatzeari buruzkoak.
- Langileen %30ak, gutxienez, kontratu mugagabea duela, laneko egonkortasuna bermatzeko helburuarekin.
- Egiaztatutako Enpresen Erregistroan izena emanda dagoela.
- Legeak azpikontatazio erregimenerako ezarritako mugak betetzen dituela.

- b) Enpresa kontratistak Azpikontratazio Liburua eduki beharko du, eta liburu hori eskura egongo da obran esku hartzen duten eragile guztientzat. Gainera, Azpikontratazio Liburuan egindako anotazio guztiak segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari jakinarazi beharko dio.
 - c) Enpresa kontratistak obran parte hartzen ari diren enpresa guztietako langileen ordezkariari berri eman beharko die bai obran egindako kontratazio edo azpikontratazioei buruz, bai jarduerak koordinatzeko aurreikusi diren neurriari buruz.
 - d) Enpresa kontratistak egiaztatu behar du, azpikontratutako jarduerari ekin aurretik, azpikontratutako enpresetako langileen Gizarte Segurantzako alta eta afiliazioa, eta kontratazio organoari jakinarazi behar dio.
 - e) Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginekoko 60. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.
 - f) Enpresa kontratistak egiaztatu egin beharko du enpresa azpikontratistak, langile berriak kontratatu behar baditu kontratua exekutatzeko, lehenetsi dituela gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak, lanik ez dutenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituztenak.
5. Kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariari, lan arloko legeriak agintzen duen bezala.
6. Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, baldin eta ez badaude jasoak indarrean dagoen kontratazio araudian, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren arabera, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna (8. Artikulua).

Obra kontratuetako baldintza administratibo berezien agiri guztietan txertatu beharko da emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko betebeharrari buruzko honako klausula hau:

1. Enpresa esleipendunak, prestazioa egiterakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu behar ditu, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 20 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 250 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusi ditzake, besteak beste, ondorengo arloetan: okupazioan, sustapen eta prestakuntzarako aukeretan; sailkapen profesionalean; ordainsarrietan; bizitza pertsonala, familiakoa eta lana bateragarri egiteko lanaldiaren antolaketan; eta jazarpen sexualari eta sexu arrazoiarengatik aurrea hartzeko zereginen.

Kontratuaren exekuzio esparruan egin behar da plana, aipatu lege organikoan ezarritako edukiarekin.

2. Enpresa kontratistak neurriak ezarriko ditu kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiara bateragarri egiten laguntzeko eta, azpikontratarik balego, hark ere ezarri dituela egiaztatuko du.

Langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiara bateratzen laguntzeko, esleipendunari eskatuko zaio neurriak hartzeko familia zamak dituzten langileentzako ordutegi malgutasuna bermatzeko, edo familia ardurak dituzten langileentzako lanaldi partzialaren eta lanaldi osoaren arteko mugikortasuna ziurtatzeko.

3. Kontratua exekutatuzeko langile berriak kontratatu behar badira, eta kontratuari atxikita dagoen plantillan emakumeen eta gizonen arteko desoreka egon eta ondorioz emakume gutxiago badago, gutxienez emakume bat kontratatu beharko da edo, bestela, aldi baterako kontratua duen emakume bati kontratu mugagabea egin beharko zaio. Ulertuko da gizonen eta emakumeen arteko desoreka dagoela emakumeak direnean langile guztien 100eko 40 baino gutxiago.
4. Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren arabera, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.
5. Kontratuak esleitzeko garaian, lehentasuna emango zaie, kaudimen teknika edo lanbide kaudimena egiaztatuzko unean, lan merkatuan emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria sustatzeko neurriak ezarrita dituzten enpresek, baldin eta proposamen horiek, esleipena egiteko oinarri hartzen diren irizpide objektiboen ikuspuntutik, proposamen onuragarrienen parekoak badira.

5. Zigorak ezartzeko erregimena (11/2014 Foru arauaren V. Kapituluak)

Ez betetzeak zehaztea (30.1 artikulua): administrazio klausula berezien orriek edo dagokion dokumentazio baliokideak kontratuaren esleipenean ezarri diren izaera sozialeko, ingurumenari buruzko edo beste politika publiko batzuei buruzko betekizunen ez betetzeen zerrenda jasoko dute, zigorak ezartze aldera.

Funtsezko betekizunak ez betetzeagatik kontratua suntsitzea (30.1 artikulua): Ez da zigorrik ezarriko, kontratua suntsitu baizik, foru arau honen 14 eta 23 artikuluan ezarritakoaren arabera funtsezko izaera eman zaien betekizunak ez betetzeak.

Ez betetzeen kalifikazioa eta larritasuna (30.2 artikulua). Ez betetzeak arintzat, larritzat edo oso larritzat joko dira.

Nolanahi ere, ez betetze oso larritzat jotzen dira honako betekizun hauek ez betetzea:

- a) Genero ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat den kasuetan, ez betetzea emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko zehaztutako helburuekin aurkeztutako lan planeko ekintzak, baldin eta ekintza horiek kontratuaren prestatze dokumentazioan oinarritzat jo badira, baita enpresa edo entitate esleipendunak ez badu bete kontratua gauzatzeko lan talderako edo lan talde horretako ardura postuetarako emakume portzentaje bat kontratatzeke bere konpromisoa.
- b) Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea kontratuaren objektuaren parte denean, enpresa edo entitate esleipendunak ez betetzea kontratua gauzatzeko lan talderako perfil horietako dagokion pertsona portzentajea kontratatzeke betekizuna.
- c) Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen enplegua sustatzea kontratuaren objektuaren parte denean, enpresa edo entitate esleipendunak ez betetzea kontratua gauzatzeko lan talderako perfil horietako dagokion pertsona portzentajea kontratatzeke betekizuna, baita langile tekniko espezializatuen bidez gizarteratzeko laguntza emateko betekizuna erabat edo funtsean ez betetzea ere.
- d) Jangela edo catering zerbitzuetako menuak egin behar diren kasuetan, ez betetzea honako produktu hauek erabiltzeko betekizuna: produktu ekologiko, fresko edo/eta garaiko produktuak, Jatorri Izendapen Babestuko edo Adierazpen Geografiko Babestuko produktuak edo ezaugarri tekniko baliokideak dituzten produktuak.

Zigorak zehaztea (31. artikulua): klausulen orrietan zigorak aurreikusiko dira, eta zigorren gehieneko eta gutxieneko mugak ezarriko dira. Zigor horiek ezin izango dira inoiz izan kontratuaren aurrekontuaren %10 baino handiagoak. Gainera, zigorak ordaintzeko sistema zehaztuko da: ordainketa oso edo partzial gisa kontratatari ordaindu beharreko kopurutik deduzituz; edo eraturtako bermetik kenduz.

- Ez betetze arinengatik kontratuaren prezioaren %4 gaindituko ez duen zigorra jarriko da.
- Ez betetze larriengatik kontratuaren prezioaren %4 baino zigor handiagoa jarriko da, baina prezio horren %7 gainditu gabe.
- z betetze oso larriengatik kontratuaren prezioaren %7 baino isun handiagoa jarriko da, baina prezio horren %10 gainditu gabe.

4/2013 Foru araua, uztailaren 17koa, foru sektore publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoa.

Lan arloari dagokionez, 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Arauak, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzekoak, 14. eta 15. artikuluetan ezarritakoa izan behar da kontuan.

6. Kontratuaren jarraipena eta betetzen dela egiaztatzea

11/2014 Foru Arauak ezartzen du (32. artikulua) kontratazio organoak kontratua gainbegiratzeko eta prestazioa bermatzeko pertsona edo entitate bat izendatuko duela, eta pertsona edo entitate horrek egingo diela jarraipena, kontratuari jarraikiz, enpresa edo entitate esleipendunak bere gain hartutako kontratu betekizunei. Era berean, foru arauan aurreikusten diren betekizunen balizko arau hausteen berri emango dio kontratazio organoari; hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

11/2014 Foru Arauaren Lehen xedapen gehigarriak jarraipen eta aholkularitza organo bat sortzeko aukera ematen dio Diputatuen Kontseiluari foru arau honen betetze maila egiaztatzeko; eta Laugarren xedapen gehigarrian xedatzen du Diputatuen Kontseiluak idatzizko informazioa emango diela Gipuzkoako Batzar Nagusiei Foru Arau honen betetze mailari buruz aurreikusten dituen klausulak txertatzeari dagokionez eta lortu nahi dituen interes orokorreko helburu publikoen lorpenari dagokionez, bai eta, hala badagokio, haren helburuak era egokienean betetzeko sartu beharko lirartekeen aldaketen proposamenak ere.

Bestalde, 4/2013 Foru Arauak 10. artikuluan zehazten du klausula sozialak bete diren Egiaztatzeko eta Ebaluatzeko batzorde tekniko bat eratuko dela. Eta 11., 12. eta 13. artikuluetan finkatzen ditu Egiaztapenerako eta Ebaluaziorako Batzorde Teknikoaren osaera eta funtzionamendua, funtzioak eta prozedura, izaera sozialeko klausulak betetzen direla egiaztatzeko eta ebaluatzeko.

Gehien kezkatzen dutenetako gai bat, kontratazio organoak eta kontratuaren arduradunak, eta baita lizitatuak eta esleipendun izango direnak ere, bereziki kezkatzen dituenak, klausula sozialak betetzen direla frogatzeko eta egiaztatzeko sistema da, eta horregatik proposatzen dugu ondoko taula, lizitazio fasean eta gero kontratua gauzatzeko fasean eska daitezkeen dokumentuak, adierazleak edo egiaztagarriak zehazteko:

Irizpidea	Lizitazio fasea	Gauzatzeko fasea
Kontratu erreserbatuak	Laneratzeko Enpresen Erregistroan edo Enplegu Zentro Berezienean inskribatuta egotea.	
Desgaitasuna duten pertsonen gordetako lanpostuen erreserba kuota	Enpresaren ziurtagiri bat; ziurtagiri horretan plantillako langile guztien kopurua, nahiz desgaitasunen bat dutenen kopurua jaso beharko da; eta legez ezarritako ordezkotako neurriak aukeratzeko gero, salbuespen adierazpenaren kopia eta lizitatuaren adierazpena hartutako neurriak zehaztuz.	TC1 eta TC2 dokumentuak eskatu ahal izango dira, eta enpresaren matrikula liburua plantillako langileen kopurua egiaztatzeko, eta desgaitasuna duten langileen ziurtagiriak.
Hizkuntzaren erregimen juridikoa	Erantzukizunpeko deklarazioa, konpromisoa hartuz, kontratazioa egiten denean hizkuntzari buruz indarrean dagoen erregimen juridikoak agindutakoa betetzeko behar adina langile jartzeko edo atxikitze kontratua gauzatzeko.	Langileen hizkuntza eskakizunen ziurtagiria edo egiaztapena. Txostenak, errota, seinalazioa eta bestelakoak euskaraz eta gaztelaniaz egiten direla erakusteko egiaztapena edo jatorrizkoen kopia.

Esleipen irizpideak: Emakumeen eta gizonen berdintasuna	Berdintasun arloko laneko plana, ekintza zehatzekin.	Laneko Planaren ebaluazio memoria.
	Erantzukizunpeko deklarazioa, emakume gehiago kontratatzeke konpromisoarekin emakumeen okupazio indize baxuko sektoreetan.	Kontratua gauzatzeko aldi kontratatutako emakumei buruzko zinpeko deklarazioa. Egoki denean, TC1 eta TC2 eskatzea, eta enpresaren matrikula liburua, plantillako langileen kopuruaren eboluzioa eta epealdi horretan kontratatutako emakumeen kopurua ikusteko.
	Erantzukizunpeko deklarazioa, kontratua gauzatzeko, arduraren postuetan emakume gehiago kontratatzeke konpromisoarekin.	Kontratua gauzatzeko aldi kontratatutako emakumei buruzko zinpeko deklarazioa. Egoki denean, TC1 eta TC2 eskatzea, eta enpresaren matrikula liburua, plantillako langileen kopuruaren eboluzioa eta epealdi horretan arduraren postuetan kontratatutako emakumeen kopurua ikusteko.
	Berdintasun Plana aurkeztea.	Berdintasun Planaren ebaluazio memoria.
	Aurreikusitako kontziliazio neurrien azalpena eta xehetasunak.	Proposamen teknikoan hartutako konpromisoaren arabera, aplikatutako kontziliazio neurriei buruzko ebaluazio memoria.
Esleipen irizpideak: Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten enplegua sustatzea	Lizitatuzailearen zinpeko deklarazioa, kontratua gauzatzeko profil horretako langile portzentaje bat jartzeko konpromisoarekin.	a) Kontratua sinatu eta hilabeteko epean, enpresa edo entitate esleipendunak hautatu dituen pertsonen datuak jakinaraziko ditu, eta Gizarte Segurantzako altaren eta lan kontratuaren kopiak aurkeztuko ditu. b) Hilero eta kontratuak irauten duen bitartean, enpresa edo entitate esleipendunak TC1 eta TC2 dokumentuak eta matrikula liburua aurkeztu beharko dizkio kontratuaren arduradunari, betekizuna egiaz bete dela egiaztatzeke.

<p>Esleipen irizpideak:</p> <p>Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzat enplegua sustatzea</p>	<p>Gizarteratzeko eta Laneratzeko Proiektua:</p> <p>a) Enpresa edo entitate lizitatuak kontratatze asmoa duen gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonen portzentajea.</p> <p>b) Gizarteratzeko prozesuan laguntzen espezializatuak diren langile teknikoak.</p> <p>c) Lan metodologia, gizarteratzeko ibilbideak egiteko aurreikusten dena; eta gizarteratzeko bakarkako prozesuen ebaluazio adierazleak, haien operatibotasuna eta egokitasuna kontuan hartuta.</p> <p>d) Prestakuntza plan orokorra eta berezia.</p> <p>e) Koordinazio proposamena, erakunde publiko eta pribatuekin, kontratuaren xede diren gizarteratze zereginetarako.</p>	<p>Zinpeko deklarazioa, bazterkerian dauden zenbat langile kontratatu diren adieraziko duena, eta gizarte zerbitzuen txostena, egiaztagiri gisa.</p> <p>Ekintza horiek burutu dituzten langile espezializatuen titulazioa eta CVa.</p> <p>Kontratu prestazioari egokitutako lan metodologia aplikatzeari buruzko memoria.</p> <p>Prestakuntza Planaren Memoria, besteak beste, irakasleak, ikasleen kopurua, ordutegiak, moduluak, edukia eta ebaluazioa.</p> <p>Gizarteratze eta laneratzeko zereginak gauzatzean egindako koordinazioaren aplikazioari buruzko ebaluazio memoria, entitateak, egindako ekintzak eta horien intzidentzia zehaztuz.</p>
<p>Esleipen irizpideak:</p> <p>Proposamenaren kalitate soziala</p>	<p>Laneko proposamena, proposamenaren kalitate sozialaren inguruko esleipen irizpideei buruz 11/2014 Foru Arauaren 18.2 artikuluko a) eta k) bitarteko letrek zehazten dutena jasoko duena.</p>	<p>Proposamen teknikoan planteatutako lan proposamena betetzei buruzko ebaluazio kualitatibo eta kuantitatibo azaltzeko memoria, besteak beste zehaztuz, emaitzak, eraginkortasuna, entitate parte hartzaileak, onuradunak eta egindako jarduerak.</p>
<p>Gauzatze baldintzak berdintasun arloan</p>	<p>Proposamen teknikoan sartu behar dira: kontratuaren eremuan emakumeek eta gizonek bizi duten egoeraren analisi banakatua, kontratuaren bidez lortu nahi diren helburuen zehaztapena eta, helburu horiek lortzeko, enpresa edo entitate esleipendunak bete beharko dituen neurriak.</p>	<p>Memoria bat aurkeztu beharko da kontratuaren objektuaren betetzea justifikatzeko dokumentazioan; bertan aipatu beharko dira kontrataturiko zerbitzuen erabiltzaile edo onuradunen eta kontratua gauzatu duen lantaldeko pertsonen datuak eta adierazleak, sexuaren arabera berezita, beti ere hartutako neurrien eragina zein izan den ebaluatzeko.</p>

<p>Gauzatze faseko baldintza bereziak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez</p>	<p>Zinpeko deklarazioa, 24.1 artikulua agindutako konpromiso hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Neurriak hartzea kontratua gauzatzeko jarritako langileen artean enplegu berdintasuna bermatzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko. b) Emakume portzentaje handiago kontratatzea emakume gutxiago dauden jarduera sektoreetan. c) Dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan hizkuntza ez sexista erabiltzea eta berdintasun balioak erakusten dituen irudi bat sustatzea. d) Behar adina neurri hartuko direla bermatzea sexu jazarpena eta sexua dela-eta laneko jazarpena prebenitzeko, baldin eta kontratua gauzatzeko langile taldean hamar langile baino gehiago badaude. 	<p>Proposamen teknikoan hartutako konpromisoaren arabera, aplikatutako berdintasun eta kontziliazio neurriei buruzko ebaluazio memoria.</p> <p>Kontratua gauzatzeko aldian kontratatutako emakumei buruzko zinpeko deklarazioa. Egoki denean, TC1 eta TC2 eskatzea, eta enpresaren matrikula liburua, plantillako langileen kopuruaren eboluzioa eta epealdi horretan kontratatutako emakumeen kopurua ikusteko.</p> <p>Kontratu prestazioan erabilitako material, dokumentu eta publizitatearen kopia.</p> <p>Aplikatutako prebentzio planaren kopia, eta ebaluazioa, egindako ekintzak, onuradunak eta emaitzak zehaztuz.</p>
<p>Gauzatze baldintza bereziak gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenentzat enplegua sustatzeko</p>	<p>Lizitatuzailearen zinpeko deklarazioa, kontratua gauzatzeko profil horretako langile portzentaje bat jartzeko konpromisoarekin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Kontratua sinatu eta hilabeteko epean, enpresa edo entitate esleipendunak hautatu dituen pertsonen datuak jakinaraziko ditu, eta Gizarte Segurantzako altaren eta lan kontratuaren kopiak aurkeztuko ditu. b) Hilero eta kontratuak irauten duen bitartean, enpresa edo entitate esleipendunak TC1 eta TC2 dokumentuak eta matrikula liburua aurkeztu beharko dizkio kontratuaren arduradunari, betekizuna egiaz bete dela egiaztatzeko.

<p>Gauzatze baldintza bereziak irizpide etikoei eta merkataritza justuari dagokienez</p>	<p>Zinpeko deklarazioa, kontratu prestazioan merkataritza justuko produktu batzuk erabiltzeko konpromisoarekin. Produktu konkretuak zehaztuko dira, edo aurrekontuaren portzentaje bat edo zenbateko bat.</p> <p>Zinpeko deklarazioa, ekoizpen kate osoan langileen oinarrizko eskubideak errespetatuko direla eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako oinarrizko konbentzioak beteko direla agintzeko.</p>	<p>Fakturak aurkeztea produktu horiek erosi direla egiaztatzeko. Produktuen xehetasunak eta zenbatekoa zehaztu beharko dira, eta jatorria egiaztatu, WFTO egiaztagiraren, edo Fairtrade zigiluaren, edo balio bereko beste ziurtagiriren baten bidez.</p> <p>a) SA 8000/Fair Wear Foundation, Made in Green edo baliokide den jarraibide kodearen egiaztagiraren bidez.</p> <p>b) Kanpoko enpresek egindako auditoria sozialeko egiaztagiraren bidez.</p> <p>c) Zinpeko aitortpenaren bidez edo zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez, zeinak erakusten baitu betetzen direla Europako Parlamentuaren 2005/2245 (IMI) Ebazpenak merkataritza justuari eta garapenari buruz ezarritako estandarrak.</p>
<p>Gauzatze baldintza bereziak enplegu kalitateari eta oinarrizko lan eskubideei dagokienez</p>	<p>Zinpeko deklarazioa, enpresa kontratistak nahiz azpikontratistak kontratua gauzatzeko jarriko dituzten langileei aplikatzekoak zaizkien lan arloko, gizarte segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko xedapen guztiak betetzeko konpromisoarekin.</p> <p>Konpromisoa hartzeko deklarazioa, enpresa kontratistaren jarduera sektoreko eremu txikieneko azken lan hitzarmen sektorialean ezarritako baldintzak beteko direla, beti ere kontratuari atxikita dauden langileei dagokienez, eta indarrean egon litezkeen eta hitzarmen horietan ezarritakoa hobe dezaketen enpresako beste hitzarmen edo paktuen kalterik gabe.</p>	<p>Segurtasun eta Osasun Planaren kopia, Arriskuak Prebenitzeko planarena, laneko segurtasun zein osasunarentzako arriskuen ebaluazioa, eta prebentzio jardueraren plangintza.</p> <p>Langileei Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiria.</p> <p>Zinpeko deklarazioa, hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen direla esaten duena; halaber, eskatu ahal izango dira TC1 eta TC2, enpresaren matrikula liburua, nominak, lan kontratuak edo, baldin badago, Enpresa Batzordearen ziurtagiria.</p>

<p>Gauzatze baldintza bereziak elikagaien erosketa publikoari dagokionez</p>	<p>Zinpeko deklarazioa, kontratu prestazioan produktu jakin batzuk erabiltzeko konpromisoarekin. Produktu ekologikoak izango dira, freskoak eta/edo garaikoak, Jatorri Izendapen Babestua edo Adierazpen Geografiko Babestua edo balio berekoa dutenak, eta produktu konkretuak zehaztu beharko dira edo aurrekontu portzentajea edo zenbatekoa.</p>	<p>Nekazaritza ekologikoko produktuei buruz, ziurtapena edo etiketan ES-ECO-026-VAS kodea izatea eskatuko da, eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEEK) zigilua; bestela, produktuaren benekotasuna egiaztatzen duen entitatearen izena eta kodea.</p> <p>Produktu freskoei dagokienez, esleipendunak espresuki egiaztatu beharko du betetzen duela 1967ko irailaren 21eko 2484/1967 Dekretua, Espainiako Elikagaien Kodea onartzen duena, edo produktu bakoitzaren araudia bestela.</p> <p>Garaiko produktuei dagokienez, esleipendunak egiaztatu beharko du administrazio klausula berezien orrietan edo dagokion dokumentazio baliokidean jasotako garaiko elikagaien egutegiaren arabera bildutakoak direla.</p>
---	--	--

7. 11/2014 Foru arauaren eta 4/2013 Foru arauaren aplikazioa garatzeko gomendioen txostena

Txosten hau egin da pentsatuz foru arauak onartu ondoren hainbat jarduketa planifikatu behar direla Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu eta kontratazio organo guztiek ezagut ditzaten foru arau horiek, klausulen orrietara eraman ditzaten, eta, halaber, betetzen direla egiaztatzeke eta emaitzak neurtzeko modua zehatz dezaten.

Esperientziak erakutsi digu araua onartze hutsak ez duela esan nahi berehala aplikatuko denik eta, gutxiago, ongi inplementatuko denik. Beraz, azken kapitulu honen bokazioa ibilbide orri izatea da, eta hainbat ekintza proposatzea arau horiek oso-osorik eta erabat aplika daitezten Gipuzkoako Aldundiaren kontratazio publikoko prozesuetan.

Ez gara hutsetik abiatzen, dagoeneko hor baitaude arauak, eta arauen testuaz gain, Gida hau eta orain arte egindako administrazio klausulen eta klausula teknikoen hainbat orritan arau horiek ezartzeko emandako aholkularitzan lortu dugun esperientzia. Horrela bada, kapitulu honetan laburki planteatzen dira ekintza eta urrats oso konkrituak, ezagunak diren gaietan luzatu gabe eta alferrikako azalpenetan galdu gabe.

Ezin dugu ahaztu legealdiaren amaieran gaudela, baina gobernu taldean gerta litezkeen aldaketak aldaketa, bidezkoa da pentsatzea gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsua izango den kontratazio publikoa garatzeko parada egokia dela, orain arte egindako lanetik abiatuta, talde horrek bere egin dezan hemen, beharrezkotzat jotzen dugun bulkada gisa, jasotzen den planteamendua –neurri batean bederen– lau urteko gobernualdi berrian izango den denbora luzean zehar.

Proposamen metodologikoa fasetan banatzen da, jarraian zehazten den bezala, eta fase bakoitzerako ekintzak proposatzen dira, arau horiek pixkanaka inplementatuz joateko bete beharko litzatekeen ordena logikoan:

Sentsibilizatzea eta zabalkundea ematea

1. **Sentsibilizatzeke jardunaldia**, Aldundiko politikariak eta kargudunak (Diputatuak, zuzendariak, etab.) sentsibilizatzeke klausula sozialei buruz (eta bi Foru Arauen edukiri buruz).
2. **Akordio politikoa**, arau horiek inplementatzen aurrera egiteke borondatea sendesteko, helburuak finkatzeko eta plan estrategikoko gisa sartzeko hemen jasotzen diren neurriak eta ekintzak, edo egokitzeke jotzen direnak.
3. **Prestakuntzako jardunaldiak**, teknikariei prestakuntza aurreratu eta praktikoa emateke: arlo juridikoko, kontratazioko, idazkaritza teknikoetako eta Aldundiko gainerako arloetako teknikariei eta klausulen orriak idazten parte hartzen dutenei.
4. **Gida editatzea**, dagoeneko landuta dagoen gida editatzea paperean eta formatu elektronikoa eta esandako pertsona horieke guztieke banatzea.

Klausulen orrietan aplikatzea

1. **Ardurak esleitzea**: arlo eta teknikari konkritu bat izendatzea klausula sozialean aplikazioa bultzatzeke eta sostengatzeke, eta prestakuntza, informazioa eta aholkularitza emateke ardura dadin.

2. **Kanpoko laguntza zerbitzu teknikoa kontratatzea** (REAS Euskadi) zalantzak argitzeko, aholkularitza emateko eta orrietan klausula sozialak sartzeko sostengua emateko.
3. **Adierazle taula bat prestatzea** (Gida honetan planteatutakoa har daiteke eredu), orri guztietan bateratuta eta berdin emateko lizitatzaileri eskatuko zaizkien elementuak foru arauetan jasotzen diren eta orrietan sartzen diren irizpide sozial bakoitzari buruz.

Adibidez, desgaitasuna dutenak kontratatzea exijitzen bada edo puntuatzen bada, klausulen orri guztietan testu berdina sar dadila, lizitatzaileri ohartarazteko, baldintza hori egiaztatzeke, esleipendunari eskatuko zaiola TC ereduak aurkeztea, eta, halaber, enpresaren matrikula liburuak eta desgaitasun ziurtagiriak.

Egiaztatzea eta ebaluatzea

1. **Jarraipena egiteko organo bat eratzea**, foru arauak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeke organo berezi bat (11/2014 Foru Arauaren 1. Xedapen gehigarria); Egiaztapenerako eta Ebaluaziorako Batzorde Teknikoa deitu zaiona 4/2013 Foru Arauan. Ematen zaion izena ematen zaiola, ezinbestekoa dela ematen du Batzorde hori eratzea, esandako funtzioekin, eta, halaber, sor daitezkeen zalantzak eta gatazkak ebazteke, arauen aplikazioa bultzatzeko behar izanez gero, garatzeko eta etengabe hobetzeko prestakuntza eta informazio ekintzak koordinatzeko eta proposatzeko, eta emaitzak bildu eta ezagutarazteke.
2. **Egiaztatzea**: ezinbestekoa da arduradun bat izendatzea, klausula sozialei dagokienez, kontratua ongi betetzen dela zaintzeko eta hartutako obligazioak benetan betetzen direla ziurtatzeko, eta, baldintzak betetzen ez direnean, kontratazio organoari berri emateko eta zigorrak ezartzea edo kontratua suntsitzea proposatzeko.

Izendapen eta ardura egozte garrantzitsu horri dagokionez, bi aukera nagusi ikusten dira: arlo eta/edo pertsona zehatz bat izendatzea kontratu guztietako klausula sozialak egiaztatzeaz ardura dadin (alde horretatik, proposatu izan da idazkaritza teknikoari edo ikuskaritza teknikoari ematea ardura hori), edo kontratu bakoitzean kontratu horren arduraduna (edo kontratazio organoa) izatea klausulak egiaztatuko dituen eta kontratua betetzen dela zainduko duena.

Gure iritziz, gai honetan dugun esperientzia zabalean oinarrituta, bigarren aukera da egokiena dudarik gabe, hau da, kontratu bakoitzaren arduradunak (edo kontratazio organoak) kontrolatzea, jarraipena egitea eta egiaztatzea klausulak betetzen direla. Asko dira aukera honen aldeko argudioak:

- Bera da orria idatzi duena eta kontratuaren edukia xehetasunez ezagutzen duena.
- Zentzuzkoa da pentsatzea orria idazten duena saiatuko dela ezartzen diren klausulak kontratuaren ezaugarriei egokitzen eta gero erraz egiaztatzeke moduan idazten.
- Esleipendunarekiko komunikazioa errazagoa izango da erreferentziako pertsona edo organoa beti berdina denean, bat baino gehiago direnean baino.
- Klausula sozialak alde batera utzita, kontratuaren arduradunak zaindu behar du kontratua ongi betetzen dela. Horregatik, ez du zentzurik klausula sozialen kontrola bereizteak kontratuaren gainerako baldintza guztien kontroletik, klausula sozialak kontratuaren parte direlako eta ez dagoelako inolako arrazoirik beste era batean edo beste pertsona edo organo batek egiaztatzeke.
- Azkenik, kontratazio publiko sozialki arduratsua txertatu nahi dugu Foru Aldundiaren ohiko kudeaketan eta praktikan, eta hori ezin da egin klausula sozialak kontrolatzeko

organo berezi bat jarrita, eta gainerako guztiek gaia ahaztu eta jaramonik egin gabe. Transbertsalitatearen kontzeptua ezin da alde batera utzi, hori gabe zailagoa izango bailitzateke Foru Arauak behar bezala aplikatzea.

3. **Kontrol tresnak:** klausula sozialak egiaztatzeko ardurak ezarri ondoren, eta finkatutako adierazleak bateratu direla suposatuz, beste bi gai nagusi geratuko lirateke: emaitzak benetan egiaztatzea, eta neurtzea.

Horretarako, nahikoa izango litzateke fitxa bat, kontratazio guztientzat berdina eta homogeneoa, esleipendunek klausula sozialak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, emaitzak jasotzeko.

Sistema benetan sinplea da metodologia egokia eta bateratua jartzen bada -argi utzi nahi dugu puntu hau– Aldundiko Arlo, Departamentu eta kontratazio organo guztientzat:

- I. Kontratua esleitu ondoren, fitxan jasoko dira esleipendunak klausula sozialei dagokienez hartu dituen obligazioak.
- II. Egiaztapena egiteko ezarrita dagoen unean, klausulak betetzen diren begiratuko da eta emaitzak fitxan jasoko dira.
- III. Fitxa horretan kontatu ahal izango dira Foru Arauetan jasotako gai sozial bakoitzari buruzko emaitzen totalak. Horrela lortu ahal izango dira gai sozial bakoitzari buruzko emaitzak, edo kontratazio organo edo Departamentu bakoitzari buruzkoak, eta datu globalak nahiz partzialak.

Fitxa bat diseinatu behar da, esate baterako, jasoko duena esleipendunak Berdintasun Plana aplikatzeko konpromisoa hartu duela hamabost langileko plantillan; edo gizarte bazterkerian dauden bi lagun bi hilabeterako kontratatu behar dituela lanaldi osoan; edo 2.500 euroren merkataritza justuko produktuak erosi behar dituela; edo Eraikuntzako hitzarmen kolektiboa bete behar duela. Adibidez:

Hartutako konpromisoa egiaztatzailea betetzea Emitza	Egiaztatzailea	Betetzea / emaitza
Desgaitasuna duten hiru langile urtebeterako kontratatzea lanaldi osoan.	TC1 eta TC2, eta enpresaren matrikula liburua plantillako langileen kopurua egiaztatzeko, eta desgaitasuna duten langileen ziurtagiriak.	Zuzen. Desgaitasuna duten hiru pertsona kontratatuta urtebeterako lanaldi osoan.
Kontratua gauzatuko duten langileen artean sexu jazarpena eta laneko sexu jazarpena prebenitzeko neurriak hartuko direla garantizatzea (hamabost langile).	Aplikaturako prebentzio planaren kopia, eta ebaluazioa, egindako ekintzak, onuradunak eta emaitzak zehaztuz.	Zuzen. Aurkeztu da prebentzio plana, egindako ekintzen xehetasunarekin eta onuradun izan dira kontratua gauzatzen ari den plantillako hamabost langileak.

2.700 euroren produktuak erostea kontratua gauzatzeko, merkataritza justuko produktuetan.	Fakturak aurkeztea produktu horiek erosi direla egiaztatzeko. Produktuen xehetasunak eta zenbatekoa zehaztu beharko dira, eta jatorria egiaztatu, WFTO egiaztagiraren, edo Fairtrade zigiluaren, edo balio bereko beste ziurtagiriren baten bidez.	Oker. 1.200 euroren erosketak egiaztatu dira faktura bidez, merkataritza justuko produktuak erosi izanaren erakusgarri. Gai honi buruzko errekerimendua egin zaio esleipendunari.
---	--	---

Fitxa berean jasoko da konpromisoak benetan bete diren, eta horrela aldi berean egiaztatu ahal izango dugu bete diren ala ez, eta emaitzak kontatu. Egia da gai batzuk ezin direla kuantitatiboki egiaztatu, kualitatiboki baizik, baina hala ere ziurtatu ahal izango dugu bete direla eta emaitzak eskuratu, direla zenbakizkoak edo bestelakoak.

Azken gomendioa –ez horregatik garrantzi txikiagokoa– fitxak sistema informatiko baten bidez diseinatzea da (ahal dela, lizitazio prozeduran bertan integratuta), kontratu bakoitzaren arduradunak edo kontratazio organoak osa ditzan: lizitazio bakoitzerako fitxa bat ireki, datuak sistemara bidaliko dituen, gero datu orokorrak lortu ahal izateko irizpide sozial bakoitzeko, edo partzialak, klik soil baten bidez, edo Aldundiko Departamentu edo Arlo bakoitzeko emaitzak eskuratu ahal izateko.

4. **Komunikazioa eta zabalkundea:** 11/2014 Foru Arauak Laugarren Xedapen gehigarrian zehazten du Diputatuen Kontseiluak idatzizko informazioa emango diela Gipuzkoako Batzar Nagusiei Foru Arauen betetze mailari buruz aurreikusten dituen klausulak txertatzeari dagokionez eta lortu nahi dituen interes orokorreko helburu publikoen lorpenari dagokionez, bai eta, hala badagokio, haren helburuak era egokienean betetzeko sartu beharko lirakeen aldaketen proposamenak ere.

Zikloa ixteko, emaitzak komunikatu behar dira, eta horrek gizartean ere badu interesa, herritarrei ezagutzera ematen zaizkielako izandako emaitzak eta lorpenak, eta Aldundiak kontratazio publikoari ematen dion ikuspegi soziala. Baina, gainera, barrura begira ere, Aldundian garrantzi handikoa da, kontratazioko teknikarien lanari egiten duten ahalegina aitortzen zaielako eta hainbat arlotan, hala nola kohesio sozialean, emakumeen eta gizonen berdintasunean, ingurumenaren jasangarritasunean, enpleguaren kalitatean, gizarteratzean eta laneratzean, etab. lortutako emaitzen partaide egiten direlako.

Komunikazio horrek zikloa ixten du eta sistemaren jarraipena segurtatzen du, izan ere, behin egiaztatzen denean kontratazio –kuantitatiboki nahiz kualitatiboki– arduratsuaren eraginkortasuna, hortik aurrera hobetu egin ahal izango delako, baina nekez atzera egin.